



LURZORUA KUTSATZEA SAIHESTU ETA KUTSATUTAKOA GARBITZEKO LEGE- AURREPROIEKTUA EGITEKO PROZEDURARI BURUZKO MEMORIA

Txosten honen helburua da Xedapen Orokorrak egiteko Prozeduraren 2003ko abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 10. artikuluko 2. zatian xedatutakoa betetzea (2003ko abenduaren 30eko EHAA, 254 zk.).

1.- AURREKARIAK

Izapidetzen den proiektuaren aurrekari hurbil eta zuzena 1/2005 Legea da, 2005eko otsailaren 4koa, lurzoria ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzekoa. Lege hori erreferentzia izan zen bere garaian giza jarduerak sortutako arazoek konponketan, jarduera horrek lurzoriaren ezaugarri fisikoak, kimikoak eta biologikoak eraldatzen baititu, batzuetan eraldaketa larriak sortzeraino.

Kalteei ahal den neurrian aurrea hartzen eta, gertatuz gero, konpontzen eta, horrenbestez, geroko belaunaldiei lurra egoera onean eta izan ditzakeen erabilera guztietarako egokian uzten laguntzeko ahalegin horren barruan onartu zuen Eusko Legebiltzarrak aipatu lege hori.

Lurzoriaren kalitatearen arloan partikularrek eta herri-administrazioek egin beharreko ekintzei legezko estaldura ematea zen legearen xedea, lurzoria babesteko Euskal Autonomia Erkidegoan diseinatutako politikaren oinarri diren hiru helburuak lortzeko: hau da, lurzoriaren eraldaketa berriak agertzea saihestu, kasurik premiazkoenak konpondu, eta, azkenik, kutsatutako lurzori gisa oinordetzan hartutako pasiboa epe ertain eta luzera konpontzeko plangintza egin.

Lurzoriaren kalitatea babesten aurrerapen handiak lortu arren –bereziki, natura-baliabide horren babes-aldagaia partikularren eta oro har herri-administrazioen jarduketetan sartzean–, 2005eko otsailaren 4ko 1/2005 Legea praktikan aplikatzean, agerian geratu ziren legea aldatzea beharrezkoa zela erakusten zuten arazoak. Aldaketa horren xedea hau zen: arauaren helburua, hots, lurzoria babestea eta lurzoriaren kutsadura garbitzea, bereziki kasurik garrantzitsuenetan betetzea, lurzoria kutsa zezaketen jarduera eta instalazioek egin zezaketen kaltearen arabera.

Zehazki, arauaren aplikazio praktikoan argi gelditu zen lurra kutsa dezaketen jarduera batzuek kutsatzeko ahal txikia dutela; adibidez, auto-kontzesionarioek, baina haietako baten titularrak arauan jasotako agindu guztiak betetzera behartuta dago, are prozeduraren hasiera ere, jarduera amaitzean. Era berean, ikusi zen luraren kalitate-adierazpena egiteko prozedura osoa izapidetu behar zela arauaren arabera, baldin eta, besterik gabe, ur- edo argi-zerbitzuak ezarri nahi baitziren lurra kutsa zezaketen jarduerak izandako kokaguneetan.

Bi dira arautze berriari sartzen diren berrikuntza nagusiak. Alde batetik, lurra kutsa dezaketen jardueren sailkapena egiten da.

Beste alde batetik, lurzoriaren kutsadura saihestu eta garbitzearen arloko esku-hartze administratiboa bizkortzeko, bi prozedura ezarri dira lurzoriaren kalitatearen arloan

ere: lurzoruaren kalitatearen adierazpenaren prozedura, zeinak proposatutako erabilera lurzorurako egokia den balioztatzeko xedea baitu; eta lurzoruaren erabileraren gaitasuna adierazteko prozedura, zeina prozedura soilagoa baita eta industria-erabilerarako soilik den lurzoruaren gaitasuna balioztatzeko xedea baitu. Era berean, legean araututako prozedurak hastea zer kasutan ez den beharrezkoa izango finkatzen da. Finkatze hori ez da oztopo izango administrazio-kontrola egiteko, hari esker jakingo baitu autonomia-erkidegoko ingurumen-organoak ekintzak nola egin diren, eta egiaztatuko baitu ekintza horiek lurzoruaren kutsadura saihestu eta garbitzearen arloko helburuei egokitzen zaizkiela.

Gai honi dagokionez, honako hau azpimarratu behar da: bigarren xedapen iragankorrean xedatzen denez, lege hau indarrean sartu aurretik lurzoruaren kalitatearen adierazpen-prozedura gisa hasitako kasuak lege honetan ezarritakoaren arabera bideratuko dira, baldin eta lege honen arabera lurzoruaren erabilera-egokitasunaren adierazpen-prozedura gisa bideratu beharrekoak badira, edo prozedura horietatik salbuets badaitezke, betiere prozedura hasi duen pertsonak hori eskatzen duenean, eta hasitako prozeduran behin betiko ebazpena eman ez bada.

Gainera, hondakinen gaian indarrean dagoen araudian eta lurzoruaren kutsadura saihesteko araudian jasotako xedapenak batera lantzeko, garrantzi berezia hartzen dute lege berriko xedapenek. Berriaz ezartzen da hau: hondakinak uzteko jardura bat egin den leketan, zigilatzea nahitaezkoa denean edo zigilatzea aurreikusten denean, autonomia-erkidegoko ingurumen-organoak zuzen zigilatu dela onartzeko eta itxiera osteko aldia hastea erabaki dela adierazteko emandako ebazpenak lurzoruaren kalitatearen adierazpenaren ondorioak izango ditu, eta, xede horretarako, erabilera bateragarriaren inguruko adierazpena gehituko da.

2.- LEGE-AURREPROIEKTUA IZAPIDETZEA

2.1.- Hasiera emateko agindua eta alde zurreko onarpenerako agindua

Helburu horrekin eman zen honako agindu hau: Agindua, 2010eko maiatzaren 27koa, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza sailburuarena, 1/2005 Legea, 2005eko otsailaren 4koa, lurzoria ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko aldatzeko lege-proiektua egiteko espedienteari hasiera ematea erabaki zuena.

Prozedura hasi ondoren, arau-testua aldatzeko zenbait testu prestatu ziren. Hasierako planteamenduen arabera, legea parametro bikoitz baten arabera aldatzea zen xedea: batetik, administrazioaren esku-hartzea murriztuz, administrazio-izapideak sinplifikatuz eta, beharrik ez dagoenean, tutoretzarik ez izatearen printzipioa betez; eta, bestetik, ingurumen-estandarrek hertsiki mantenduz, aldaketarekin estandar horiek inola ere urritu gabe.

Geroago, zenbait lege eta haiek garatzeko arauak onartu ziren; besteak beste: 22/2011 Legea, 2011ko uztailaren 28koa, hondakin eta kutsatutako zoruei buruzkoa; 26/2007 Legea, 2007ko urriaren 23koa, ingurumen erantzukizunari buruzkoa; eta 5/2013 Legea, 2013ko ekainaren 11koa, kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko 2002ko uztailaren 1eko 16/2002 Legea eta hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko 2011ko uztailaren 28ko 22/2011 Legea aldatzen dituenak. Onartze horien ondoren, ikusi zen komeni zela 2005eko otsailaren 4ko 1/2005 Legean jasotako gauza batzuk egokitzea. Halaber, beharrezkotzat jo zen legean araututako prozedurak kudeatzeagatik tasak ezartzea.

Aldaketa horiengatik guztiengatik izan zen gomendagarria 2005eko otsailaren 4ko 1/2005 Legea aldatu beharrean lege-testu berri bat idaztea, aurreko legea osorik ordeztuz. Testu hori aurrez onartu zuen agindu honek: Agindua, 2012ko otsailaren 13koa, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza sailburuarena.

Erreferentziazko lege-aurreproiektua dela eta, beste administrazio batzuekiko kontsulta-izapidea eta entzunaldia egin ziren, 2003ko abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 8. eta 9. artikuluen arabera. Era berean, jendaurreko informazio-izapidea egin zen, eta Ingurumen Sailburuordetzak, ingurumen-arloan parte-hartze publikorako eskubideak erabiltzea bermatzeaz bereganatuta dauzkan konpromisoen barruan, arau-ekimenaren berri eman zuen bere egoitza elektronikoa, eta alegazioak egiteko aldiaren hasiera jakinarazi.

Era berean, 2012an beste izapide hauek ere egin ziren: Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzaren eta Zerga Administrazioari buruzko txostena eta genero-arloko eraginari buruzko ebaluazioa.

Aurreproiektuaz, gainera, txosten bana egin zuten Euskal Herriko Ingurugiro Batzordeak, Ingurugirorako Aholku Kontseiluak eta Euskadiko Kontsumoko Kontsulta Batzordeak.

Izapide horien guztien ondoren, beste testu bat egin zen, aurreko legegintzaldiaren amaieran Kontrol Ekonomikoko Bulegora igorri zena, baina hark ez zuen irizpenik eman, ekimena etenda zegoela pentsatu zuelako, Ingurumen eta Lurralde Politikako Sail berriak erabakia hartu bitartean.

Testu hura oinarri hartuta, zenbait aldaketa egin ziren. Batzuk proposatutako arauketaren eduki materialari zegozkion, zenbait kontu gehitu baitziren prozedurak sinplifikatu eta arintzeko helburua lortzeko; beste batzuk, berriz, alde formalari, eta prozedurazko zenbait gauza kendu ziren, araua arautegietan neurritz gain oinarrituta egon ez zedin, hala nola, besteak beste, oneratzeko planaren edukia, gaikako hondeaketa-planarena, prozedura hasteko eskaerarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioarena, eta ingurumen-organoak, luraren kalitate-prozeduren edo erabiltzeko egokitasun-prozeduren barruan, eman beharreko ebazpenena.

Une horretan pentsatu zen lurra ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko lege-aurreproiektu berriak jasotzen zituen aldaketak ez zirela funtsezkoak, eta ez zirela kalterik egiten eragindakoen interesei; horregatik, ez zen beharrezkoa berriz egitea ordura arte egindako izapideak.

Hala ere, zuzendaritza-talde berriak arau-testu berria formalki onar zezan, berriz onartu zen aurretiaz arau-testua, Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuak 2013ko maiatzaren 20an emandako Agindu bidez.

2.2.- Beste izapide batzuk: entzunaldia, kontsulta eta parte-hartzea eta kide anitzeko organoen txostena

Erreferentziazko lege-aurreproiektua dela eta, beste administrazio batzuekiko kontsulta-izapidea eta entzunaldia egin ziren, 2003ko abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 8. eta 9. artikuluen arabera.

Horretarako, 2012ko martxoaren 12an, kontsulta-izapidea egin zen administrazio hauekin: Foru-aldundiak –ingurumenean, herrilanean eta bide-azpiegituretan eskumena duten sailak–, Estatuko Administrazioa –Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen, eta Sustapen ministerioen bidez–, eta udalak –EUDELen bidez–. Aldi

berean, entzunaldi-izapidea egin zitzaien baimendutako erakundeei, elkarteei eta lanbide-elkargoei.

Bestalde, Ingurumen Plangintzako zuzendariak 2012ko martxoaren 6an emandako ebazpen bidez (EHAAⁿ argitaratua 28an), lege-aurreproiektua jendaurreko informaziora atera zen.

Martxoaren 16an, arauak eskumen-esparruetan daukan eragina kontuan hartuta, ekimenaren berri eman zitzaien honako sail hauei xedapen orokorren izapidetze telematikoa erabilita: Herrizaingo Saila, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saila, eta Osasun eta Kontsumo Saila.

Izapide horiez gain, Ingurumen Sailburuordetzak, ingurumen-arloan parte-hartze publikorako eskubideak erabiltzea bermatzeaz bereganatuta dauzkan konpromisoen barruan¹, arau-ekimenaren berri eman zuen bere egoitza elektronikoan, eta alegazioak egiteko aldiaren hasiera jakinarazi.

Partaidetza-izapide horien guztien ondorioz, erakunde hauen alegazioak jaso ziren:

- Bizkaiko Foru Aldundia, Herri Lan eta Garraio Saila
- Bilboko Udala
- EUDEL
- CONFEBASK
- ACLIMA
- Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila: Araubide Juridiko, Ekonomiko eta Zerbitzu Orokorretako Zuzendaritza eta Osasun Publikoko Zuzendaritza.
- Uraren Euskal Agentzia, URA
- URS
- Limia&Martin, S.L.
- Litoclean
- EHNE
- Basoinsa, S.L.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza eta Industria sailek egindako eskaintzari erantzun zioten, eta aurreproiektuari buruzko alegaziorik ez zutela esan zuten.

Oharpenak eta alegazioak ebaluatu egin ziren, eta, ondorioz, testua aldatu zen. 2012ko uztailaren 27an, alegazioei erantzuteko txostena egin zen (memoria honi erantsi zaio)². Txosten hori, aldatutako lege-aurreproiektuaren testuarekin batera, kontsulta- eta entzunaldi-izapideetan parte hartu zuten erakundeei helarazi zitzaien, eta eskuragarri egon zen sailaren web-orrian.

Bestalde, 2012ko otsailaren 29an, Euskal Herriko Ingurugiro Batzordeak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurugirorako Aholku Kontseiluak aurreproiektuaren aldeko irizpena eman zuten.

¹ 27/2006 Legea, 2006ko uztailaren 18koa, ingurumen-alorrean informazioa eskuragarri izateko, partaidetza publikorako eta ingurumen-gaietan justizia eskura izateko eskubideak arautzeko dena betez

² Kontuan har bedi dokumentu hau 2012an prestatu zela, kontsulta- eta jendaurreko informazio-izapideak egin ondoren. Artikuluei buruzko aipamenak ez datoz bat beti egungo arau-testukoekin, eta, batzuetan, testuan egiten direla esaten diren aldaketak, orain, ez dira gisa berean jasota agertzen testuan.

2012ko ekainaren 12an, Euskadiko Kontsumoko Kontsulta Batzordeak aldeko irizpena eman zuen.

2.3.- Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen irizpena

2012ko ekainaren 18an, jasotako alegazioak oinarri hartuta testua aldatu ondoren, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Kontseiluaren irizpena eskatu zen.

Irizpena urte bereko uztailaren 18an eman zen, eta hasieran lege-aurreproiektuaren aldeko iritzia ematen du, baina zenbait ohar egiten ditu igorritako testuari buruz.

Irizpeneko ohar horietako batzuk bat datoz entzunaldian, kontsulta-aldian eta jendaurreko informazio-izapidean kontsultatutako administrazioek eta erakundeek alegatutakoarekin. Hala ere, irizpenean egindako kontsidero guztiei erantzuten zaie memoria honi eranskin gisa gehitutako txostenean.

2.4.- Nahitaezko txostenak

A) Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzaren txostena

Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzak, 2012ko maiatzaren 30ean, bere nahitaezko txostena eman zuen; bertan, proposatutako testuak euskarari buruzko arauak betetzen zituela esaten zuen. Hala ere, euskararen erabileraren normalizazioan izan zezakeen eraginari zegokionez, esan zuen ondo zegokeela aurreproiektuaren testuan jasotako xedapen batean berariaz adieraztea euskara eta gaztelania erabiltzeko eskubidea bermatuko zela legearen ondorioz administrazioarekin izandako harremanetan.

Iradokizun hori ez da kontuan hartu, pentsatzen baita euskararen erabilera normalizatzeko oinarritzkoa den 1982ko azaroaren 24ko 10/1982 Legetik ondorioztatzen dela, eta, horrenbestez, pertsona interesdunek herri-administrazioekin bi hizkuntza ofizialetan aritzeko duten eskubide horren bermeak ez duela berariazko aipamenik izan behar araudi sektorial batean, euskararen erabilerarekin hain zerikusitxia duen gai batean.

B) Genero-eraginaren ebaluazioa

2012ko martxoaren 22an, genero-eraginari buruzko behin-behineko txostena eman zen, eta, DNCG tramitazio elektronikoa aplikatuta, Emakunderen txostena eskatu zen.

Txosten hori 2012ko ekainaren 1ean eman zen, eta bertan zenbait iradokizun jaso ziren arauak xedatzen dituen tresnen ezarpenari begira, proiektuaren idazketari begira baino areago. Eta hala, besteak beste, jaso zuen komeni zela prozeduraren txostenetan sartzea lurra kutsa zezaketen elementuek gizon eta emakumeengan izan zezaketen eraginaren ebaluazioa, eta, gainera, osasunean eta generoan aditua zen pertsona bat izatea lur kutsatuen plana egiteko prozesuan.

Kontu horiek ez dute eskatzen aldaketak egitea arauaren testuan eta genero-eraginari buruz egindako behin-behineko txostenean, eta, hala egokituz gero, kontuan hartu beharko liriateke, nola prozedurari buruzko txostenen norainokoa eta edukia zehaztu behar direnean, hala kutsatutako lurren plana egitean.

Hala ere, komeni da oraintxe bertan adieraztea ezen, lurraren egoerari buruzko txostenen edukiaz eta miaketazko azterketez den bezainbatean, ez dirudiela zentzuzkoa denik, dokumentu horien norainokoaren eta edukien arabera, ebaluazioak

jaso ahal izatea elementu kutsatzaileek emakume eta gizonengan izan dezaketen eraginari buruz.

Ebaluazio horiek, hala egokituz gero, lekua izan lezakete ikerketa xehatuen parte diren arrisku-analisietan. Hala ere, nahiz eta *a priori* pentsa litekeen lurraren kutsadurak emakumeengan eta gizonengan duen eragina desberdina dela, ingurune horren kalitatea aldatzearen ondoriozko arriskuaren ebaluazioa ez da modu berezian egiten sistematikoki Euskadin eta esparru honetan nahiz genero-berdintasunarenean politika garatuak dauzkaten Europako beste herrialdeetan. Jarduteko modu hori ulertzeko, hainbat gauza kontuan hartu behar dira; besteak beste:

- Arriskuen analisiaren azken emaitzan faktore anitz daude, zeinek bere eginkizuna betetzen dutenak. Faktore horiek kate bereko hiru mailarekin daude erlazionatuta nagusiki: elementu kutsatzaileek lurrian eta beste kontaktu-modu batzuetan dauzkaten kontzentrazioak; kutsadura arriskuaren hartzaileengana iritsi ahal izateko esposizio-bideak; eta esposizio-egoerak, hartzaile horiek substantziekin elkarreragina zer modutan eta zer maiztasun/iraupenekin izan dezaketen zehazten baitute.
- Gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunek gauza bakar batean izan lezakete eragina; gauza hori esposizio-egoerak dira, esposizioaren zer-nolako zehazten duten faktoreak biltzen baitituzte (adibidez, esposizio-denbora), hala nola hartzaileen ezaugarriak (kasu honetan, eragindako populazioa, pisua, inhalatutako bolumena eta abar).
- Metodologiaren ikuspuntutik egin ahal izan arren arrisku-analisi bereziak gizonentzat eta emakumeentzat, ez da ohikoa bereizte hori egitea lurraren kalitatearen adierazpen-prozeduraren esparruan, besteak beste, honako arrazoi hauengatik:
 - Gizonen eta emakumeen arteko desberdintasun biometrikoen eragina ez da garrantzitsua beste batzuen aldean; adibidez, egoera berean komunak diren esposizioaren bilakaeraren beste parametro batzuen aldean (esposizioaren iraupena edo maiztasuna, esate baterako). Horri dagokionez, esan behar da arrisku-analisi guztiek sentsibilitate-ikerketa bat garatu behar dutela, analisiaren emaitzan eragin handiena duten parametroak identifikatzeko.
 - Genero-desberdintasunei buruzko datu estatistikorik ez egotea muga bat izan daiteke, baina ezin aldera daiteke balio toxikologikoen ziurgabetasunarekin, arriskuen analisiaren oinarria baitira. Balio horiek esperimendu gutxi batzuetatik datoz; gainera, haiek ez dira beti egin gizakiekin. Bi gauza horien ondorioz, nahitaezkoa da “segurtasun-faktoreak” erabiltzea (espezie-artekoak, banako-artekoak eta abar), askotan zenbait magnitude-ordenatakoak, biztanleen osasuna bermatu ahal izateko, betiere segmenturik ahulenak kontuan hartuta (haurrak, zaharrak, haurdunak eta abar).
- Eusko Jaurlaritzak argitaratutako “Gizakien osasunarentzako eta ekosistementzako arriskuen analisirako gida metodologikoa” lanak hainbat datu jasotzen ditu denbora-aurrekontuez eta, gizonak nahiz emakumeak bereizita, aldagai biometrikoen egindako inkestari buruz; horrenbestez, azterketa, kasuren batean beharrezkoa dela iritzi gero, bi taldeentzat egin liteke.

Horregatik guztiagatik, ez du ematen zentzuzkoa denik kontuan hartzea sistematikoki zer desberdintasun dauden gizonen eta emakumeen artean lurraren kalitatearen adierazpen-prozeduraren parte moduan egiten diren arrisku-analisi guztietan. Analisia

aurreikusitako erabilera bati dagokion kasuetan (ohikoak dira), arriskuen analisia egitean suposizio kontserbadoreak erabiltzen dira, eta biztanle guztiek babes-maila berak dituzte; analisia aurrez erabakitako erabilerei buruzkoa bada, eragindako emakumezko nahiz gizonezko pertsonen datu zehatzak sar daitezke azterketan.

Txostenak, halaber, esaten du beharrezkoa dela lege-aurreproiektua berrikustea, testuan, oro har, hizkuntzaren erabilera ez-sexista izan arren, argi ikusi delako termino batzuk genero maskulinoan baino ez direla eman. Aldi berean, esaten du komeni dela genero-eraginari buruzko behin-behineko txostenean erabilitako hizkuntza berrikustea.

Bi iradokizun horietako lehenengoari dagokionez, aurreproiektuaren testua berriz orraztu da. Hala ere, genero-eraginari buruzko behin-behineko txostena eta espedienteko gainerako dokumentazioa ez dira berrikusi, barne-dokumentuak direlako, argitaratzekoak ez direnak, eta, horregatik, ez duelako merezi ahalegin hori egitea.

C) Zerga Administrazioako Zuzendaritzaren txostena

2012ko uztailaren 30ean, Zerga Administrazioako Zuzendaritzak bere nahitaezko txostena eman zuen, eta bertan hau jaso: *“Arauen sakabanaketa saihestearren, komenigarritzat jotzen da lege-aurreproiektuaren VIII. kapituluaren ordezkari beste azken xedapen bat jartzea, eta horrek beste II. kapitulu bat gehitzea 2007ko irailaren 11ko 1/2007 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasa eta Prezio Publikoei buruzko Legearen testu bateginaren IX. tituluari”*.

Ohar hori aintzat hartu da.

D) Funtzio Publikoaren Zuzendaritzaren txostena

Aurreproiektuaren testua aurretiaz berriz onartu ondoren, eta legea izapidetzen berriz hasi, irizpena eskatu zitzaion Funtzio Publikoaren Zuzendaritzari, eta hark 2013ko urriaren 21ean eman zuen bere txostena.

Txosten horretan, lehenik eta behin, esaten da ezen sailak memoria ekonomikoan jasotzen diren langile-beharrak justifikatzeko erabilitako arrazoiak, testuaren arabera, irizpenaren xede den aurreproiektutik *ex novo* sortu direla ematen duen funtzio batzuk direla. Hala ere, txostenak gehitzen du aurreko legeak aztertuta ikusi dela haietako asko orduan sortu eta esleitu zirela.

Alde horretatik, berriz landutako memoria ekonomikoak esaten du egia dela ataza horietako batzuk ez direla orain izapidetzen ari den legearen berritasun, baina, era berean, kontuan hartu behar dela ez zirela aintzat hartu 1/2005 Legea izapidetzean langile-beharrei buruz egin zen azterketa sakonean, hartan, besteak beste, ez zirelako aintzat hartu inbentarioa kudeatzeko eta egiteko, kutsatutako lurren plana prestatzeko eta haren jarraipena egiteko, eta baimendutako erakundeak kudeatzeko prozedurei lotutako langile-beharrak.

E) Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren txostena

Kontrol Ekonomikoko Bulegoak 2013ko azaroaren 20an eman zuen bere nahitaezko txostena. Txosten horrek, lehendabizi, Funtzio Publikoaren txostenean egindako eta jadanik erantzundako oharpen bera egiten du, eta memoria ekonomikoa aldatu egin da, behar den guztia argituta.

Memoria ekonomiko berrian kontuan hartu da txosten horretan egiten zen beste oharpen bat ere; haren arabera, komeni zen datuak ematea sailak, urtero, kutsatutako lurren arloan atazak egiteko, IHOBEn egiten dion mandatuaren kostuei buruz.

Txosten berak, legeak aurreikusten dituen eta udalei nahiz beste toki-erakunde batzuei laguntzak emateko urtero egiten den deialdiaren bidez gauzatzen diren laguntza ekonomikoak buruz memoria ekonomikoan egindako ebaluazioari dagokionez, honako hau dio: *“Emandako laguntzen kopurua eta zenbatekoa beste daturik ez zaio eman zerbitzu honi, izandako emaitzak ebaluatu gabe”*.

Baieztape hori ez da zuzena, memoria ekonomikoak, emandako diru-laguntzen kopuruari eta zenbatekoari buruzko datuekin batera, ikertutako eta oneraturako lur-azalerei buruzko datuak ere jasotzen zituelako.

Gainerakoan, Zerga Administrazioaren Zuzendaritzaren txostenean jasotako eta jadanik kontuan hartutako oharpena errepikatzen du.

Gero, begi onez ikusten da zehapenen bidez lortutako funts ekonomikoak ingurumena hobetzeko neurriei lotzea, nahiz eta adierazten den diru-sarrerak ez lotzeko aurrekontu-printzipiotik salbueste hori eta gaur egun indarrean dagoen arauarekiko aldaketaren arrazoia funtsatu beharko lirakeela.

Gai horri dagokionez, soil-soilik esan nahi dugu ezen, Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren txostenak berak dioten bezala, printzipio hori Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko 1998ko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorretik datorrela, eta esparru horretan egokitzen dela 2005eko otsailaren 4ko 1/2005 Legearen onarpena; horregatik, azken horrek berariaz jaso ez arren zehapenetatik datozen diru-sarreraren lotze-printzipio hori, hala ulertu eta aplikatu behar zen. Gaur egun indarrean dagoen testuan berariaz jaso ez izana akats huts baten ondorioa baino ez da.

Geroago, txostenean ebaluatu egiten da aurreproiektuaren aplikazioak behartutako hirugarrenentzat izan dezakeen eragin ekonomikoari buruz memoria ekonomikoan jasotakoa; izan ere, eragin hori honako hauen ondorioa izan daiteke: aldi behin txostenak egitea lurraren egoerari buruz; lurra erabiltzeko egokitasunari buruzko adierazpen-prozedura; lurraren kalitate-adierazpenerako prozeduretatik salbuesteko kasuak; eta tasak sartzea EAEko Administrazio Orokorrek zerbitzuak emateagatik.

Aurrekoa baztertu gabe, txostenean esaten da memoriak ez duela ezer jasotzen esku hartzen duten eragileetakoren batentzat berekin aparteko kostua ekar dezaketen berme ekonomikoak ezartzeko aukerari buruz, ez eta hertsatzeko isunak ezartzeko aukerari buruz ere. Gainera, esaten du ez dela ezer aipatzen lurraren kalitatea ezagutzeko eta kontrolatzeko tresna berriei buruz; besteak beste, ordezkari aukeren azterketei, hondeaketa-planari eta lurraren azken egoera ikertzei buruz.

Horri dagokionez, esan behar da lurraren kalitatea ezagutzeko eta kontrolatzeko tresna berriak aurreko arau-testuan xedatzen ziren miaketazko ikerketen eta ikerketa xehatuaren parte direla, eta aurreproiektuak argi eta garbi azaldu besterik ez duela egiten, ukitutako eragileek egokiago presta ditzaten kasu jakin bakoitzean lurraren kalitate-prozedurarako beharrezko dokumentazioaren parte diren agiriak.

Oneratzeko eginbideak betetzera behartutakoen lehentasun-ordena aldatzei dagokionez, esan behar da ez daukala inolako garrantzi ekonomikorik, neurri egokiak hartzea behartuta dagoenaren nortasunak ez duelako aldatzen neurrien kostua.

2.5.- Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena

Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuak 2014ko otsailaren 13an emandako Agindu bidez, lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko lege-aurreproiektua helarazi zaio Aholku Batzorde Juridikoari, irizpena eman dezan, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari buruzko 2004ko azaroaren 24ko 9/2004 Legearen 3.1.a letran aurreikusitakoaren arabera, lege-aurreproiektuak sartzen baititu batzordearen kontsulta-eginkizunaren barruan.

Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak, 2014ko apirilaren 9an egindako osoko bilkuran, 58/2014 zenbakiko irizpena eman du aipatu lege-aurreproiektuari buruz. Irizpen horrek esaten du lege-aurreproiektua, hartan egindako ohar guztiak kontuan hartu ondoren, Gobernu Kontseiluari helaraz dakiokela, onar dezan.

Ondoren, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak azter dezan helarazi zaion arau-proiektuaz emandako irizpenean jasotako oharra aztertuko dira.

Aholku Batzorde Juridikoaren irizpenak dio espedientean dauden azalpenezko memorien eduki laburrak ez duela biderik ematen jakiteko ea bete diren herri-administrazioen arautze-ekimenei aplikagarriak zaizkien arautze oneko printzipioak, eta memoria horiek ez dutela ezer aditzera ematen Euskadiko ekintzaileei eta enpresa txikiari laguntzeko 2012ko ekainaren 28ko 16/2012 Legearen 5. artikuluan jasotako administrazio-kargak murrizteko mandatuak betetzeari buruz.

Harrigarria da Aholku Batzordearen baieztapenak hain erabatekoak izatea; izan ere, egia da justifikazio-memoretan ez dela berriaz aipatzen arau horietan jasotako aginduen betetzea –arrazoia da aurreproiektua arauak onartu baino lehen hasi zela izapidetzen–, baina argi dago, hain zuzen ere, arautze oneko printzipioak (Ekonomia Jasangarriari buruzko 2011ko martxoaren 4ko 2/2011 Legean bilduta daude) egon direla arautze horren beraren oinarrian.

Horrenbestez, ekonomia jasangarriari buruzko aipatu lege horren 4. artikulua arabera, arautze-ekimena baliatzean, honako printzipio hauek gidatu behar dute baliatze hori: premia, proportzionaltasuna, segurtasun juridikoa, gardentasuna, irisgarritasuna, sinpletasuna eta eraginkortasuna.

Aipatu legearen 6. artikulua arauak aldi berean behin berrikustea jasotzen du bere indarreko arauak arautze oneko printzipioetara eta jasangarritasun-helburuetara egokitzeko tresna gisa. Bada, 2010eko maiatzaren 27ko Aginduak jasotzen duen bezala (agindu horrek ematen dio hasiera legegintza-ekimena egiteko prozedurari), berrikuste hori izan da, hain zuzen ere, lege-aurreproiektua izapidetzeko arrazoia. Alde horretatik, aginduak honako hau esaten du espresuki: *“Lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko 2005eko otsailaren 4ko 1/2005 Legearen aplikazio praktikoak agerian utzitako kontu batzuen ondorioz, legea aldatzea beharrezkoa da. Aldaketaren xedea hau da: arauaren helburua, hots, lurzorua babestea eta lurzoruaren kutsadura zuzentzea, bereziki kasurik garrantzitsuenetan oinarritzea, lurzorua kutsa dezaketean jarduerak eta instalazioak egin dezaketean kaltearen arabera”*.

Hortaz, eraginkortasun-printzipioa betetzen da, lege horretan definituta dagoen bezala, arautze-ekimenak, hasierako agindutik bertatik, honako abiapuntu hau baitu: “argi identifikatzea lortu nahi diren helburuak, helburu zuzenak ezarriz, eta azken helburu horiek lortzeko beharrezkoak ez diren bigarren mailako kargak saihestuz”.

Bestalde, aipatutako legeak xedatutakoari jarraiki, eta premia- nahiz proportzionaltasun-printzipioetan oinarrituta, ekimena interes orokorreko arrazoi batek

justifikatu behar du, eta tresnarik egokiena izan behar du lortu nahi den helburua erdiesten dela bermatzeko, gutxiago murrizten eta desitxuratzen duen beste neurririk ez dagoela egiaztatu ondoren. Bada, hasierako aipatu aginduak beste behin ematen du printzipio horiek betetzearen berri: *“Legea parametro bikoitz baten arabera berrikustea da xedea: administrazioaren esku-hartzea murriztea, administrazio-izapideak sinplifikatzea, eta, beharrezkoa ez denean, tutoretzarik ez izatearen printzipioa betetzea; baina, bestetik, ingurumen-estandarrak hertsiki mantentzea, aldaketarekin estandar horiek inola ere urritu gabe. Zehazki, proiektuak aurre egin beharko dien kontu arazotsuenak hauek behar dute izan: lurraren kalitatearen gaineko adierazpen-prozedura eska daitekeen kasuen zehaztapen berria; eta lurra kutsatzeko aukera gutxien duten jardueretan, betebeharrak malguagoak ezartzeko betebeharra.”*

Printzipio horiek aplikatuz, egungoek baino "gutxiago murrizten eta desitxuratzen duten neurri batzuk" ezartzen ditu proiektuak: Lurra kutsa dezakeen jardueratzat hartu behar denaren definizio murriztaileagoa ezartzen da –lurra ukitzea eskatuta–, eta lurra kutsa dezaketen jardueren eta instalazioen sailkapena egiten, geroago betebeharrak desberdinak finkatzeko, haiek kutsatzeko duten ahalmenaren arabera.

Hortaz, agerikoa da proiektuak indarreko araudia ebaluatzen duela, eta oreka lortu nahi duela ingurumenaren beharrezko babesaren –lortu nahi duen helburua– eta garapen ekonomiko jasangarria sustatzearen artean. Memoria ekonomikoak honela egiten du balorazio hori:

Aurreproiektuaren asmoa da Administrazioaren esku-hartzea murriztea kutsatuta egon daitezkeen kokalekuetako lehengoratzeko-prozeduretan, hala nola prozedura horiei lotutako izapideak sinplifikatzea. Eta ingurumen-babesa garrantzi handieneko egoeretara mugatzea.....

Administrazioaren esku-hartzea murrizteari eta haren jarduketa azkartzeari dagokionez, aurreproiektuak honako hauek jasotzea aldeztu ditu: (i) lurra erabiltzeko egokia delako adierazpen-prozedura (lurraren kalitatearen gaineko adierazpen-prozedura sinplifikatua), eta (ii) lurraren erabileraren kalitatearen gaineko adierazpenetik salbuesteko prozedura; bata zein bestea aurrerago azalduko dira.

Aurreproiektuaren II. eranskinak jarduerak kutsatzeko duten ahalmenaren arabera sailkatzen ditu. Sailkapen horren arabera, arauak beste kontrol-betebeharrak batzuk ezartzen ditu, edo lurraren gaineko kalitatearen adierazpenetik salbuesteko prozeduretan parte hartzetik kanpo uzten du jarduera.

Ekonomia jasangarriari buruzko aipatu lege horretako printzipioekin jarraituz, 4. artikulua dio printzipio hori betetzeak arautze-ekimena honela baliatzea eskatzen duela: “koherentziaz ordenamenduaren gainerakoari dagokionez, arau-esparru egonkor eta aurreikusgarria sortzeko, ziurtasun-ingurune bat sortuz, herritarrak eta enpresak errazago ari daitezten, eta erabaki ekonomikoak errazago har ditzaten”. Horregatik, hain zuzen ere, prozedura lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko 2005eko otsailaren 4ko 1/2005 Legearen aldaketa berezi gisa hasi ondoren, onartu zen legearen beste testu oso bat onartzea, indarrekoa indargabe zezan. Hala adierazten du arau-testua aurretiaz onartzeko 2012ko otsailaren 13ko Agindua:

Hasierako planteamenduen arabera, legea parametro bikoitz baten arabera aldatzea zen xedea: batetik, administrazioaren esku-hartzea murriztuz, administrazio-izapideak sinplifikatuz eta, beharrik ez dagoenean, tutoretzarik ez izatearen printzipioa betetz; eta, bestetik, ingurumen-estandarrak hertsiki mantenduz, aldaketarekin estandar horiek inola ere urritu gabe.

Geroago, hondakinei eta kutsatutako lurri buruzko 2011ko uztailaren 28ko 22/2011 Legea onartzearen ondorioz, gomendagarria izan zen 2005eko otsailaren 4ko 1/2005 Legean jasota zeuden zenbait kontu egokitzea. Halaber, beharrezkotzat jo da legean araututako prozedurak kudeatzeagatik tasak ezartzea.

Aldaketa horiengatik guztiengatik izan da gomendagarria 2005eko otsailaren 4ko 1/2005 Legea aldatu beharrean lege-testu berri bat idaztea, aurreko legea osorik ordeztu dezan.

Orain arte hona aldatu dugunarekin, behar bezain justifikatuta gelditzen da gardentasun-printzipioa betetzen dela, erregulazioaren helburuak eta haren justifikazioa espedienteko dokumentazioan agertzen direlako.

Aholku Batzorde Juridikoaren irizpenak, aurreproiektua izapidetzeari dagokionez, “eragile ekonomikoek, beste herri-administrazio batzuek eta erakunde instituzionalek parte hartzean egindako dudagabeko ahalegina” aitortzen du, eta, horrenbestez, beteta egongo litzateke irisgarritasun-printzipioa, zerikusia duten eragileekiko kontsulta-mekanismoak ezartzeko eskatzen baitu, arauak egiteko prozesuan haien parte-hartze aktiboa susta dezaten.

Era berean, esan daiteke irizpenak betetzat jotzen duela sinpletasun-printzipioa, argi eskatzen baitu edozein arautze-ekimenek xede izan behar duela arau-esparru sinple, argi eta gutxi sakabanatua lortzea, errazago ezagutu eta ulertua izateko. Aurreproiektuak, azalpenezko zatian, onartzen du aldaketa batzuk egin direla legearen egituran, sistematikoagoa izatea lortzeko arautzen dituen alderdietan: lurzorua kalitatearen arloko bitartekoak eta prozedurak, ezartzen dituen betebeharrak, lurzoruen politikako bitartekoak eta zehapen-araubidea. Alde horretatik, irizpenak aitortzen du asmatu dela arauaren egituran aldaketa horiek eginez.

Bestalde, Euskadiko ekintzaileei eta enpresa txikiari laguntzeko 2012ko ekainaren 28ko 16/2012 Legean jasotako administrazio-kargak murrizteko aginduak betetzeari dagokionez (Aholku Batzorde Juridikoak uste du ez dagoela behar bezain ongi justifikatua), errepikatu behar dugu berekin prozedura luzatzea dakarten izapideak murrizteko eta kentzeko nahia (aipatu legearen 5. artikuluan jaso) izan dela, hain zuzen ere, ekimen osoaren funtsezko orientazioa. Eta aipatu artikuluan jasotako kontuetako batzuek, beren edukia prozedurazkoagoa izateagatik, islarik ez izan arren aurreproiektuaren espedientean (adibidez, pertsona interesdunari dokumentuak eskatzea kentzea, izapide telematikoa bultzatzea), ebazteko gehieneko epeen murrizketa, bai, arauaren bidez lortu nahi izan den helburu bat izan da, eta hala, indarreko legeko 6 hileko epearen ordeztu, aurreproiektuak, epe horri eutsi arren lurra kalitatearen adierazpen-prozeduretarako, hiru hileko eta hilabeteko gehieneko epeak ezartzen ditu, hurrenez hurren, egokitasun-prozeduretarako eta salbueste-prozeduretarako.

Azkenik, atal honi amaiera emateko, beharrezkoa iruditzen zaigu aditzera ematea espedienteari gehitutako memoria ekonomikoak ez duela bakarrik egiten aurreproiektutik ondorioztatzen diren kargen murrizketa identifikatzea, bai eta haiek ekonomikoki kuantifikatzea ere, eta haren aplikazioak enpleguan, errentan eta ekoizpenean daukan eragin ekonomikoa ebaluatzea; horrenbestez, guztiz betetzen da 16/2012 Legean arautze-proiektuei enpresan izandako eraginari buruzko txostena gehitzeko ezarritako eskakizuna.

Aipatu memoriaren arabera, horrenbestez, aurreproiektuak eragin diezaiekeen jardunen edo instalazioen %60an gertatuko da jasan behar dituzten administrazio-

kargen funtsezko murrizketa; %20an, onura aterako dutelako salbuespen-kasu berrietatik, eta lurraren kalitate-adierazpenerako prozeduraren kostu handiko izapidearen orde, jakinarazpen bat egin beharko zaiolako ingurumen-organoari, gehienez ere hilabeteko epean erantzun dezan; beste %40an, berriz, egokitasun-prozedura berrian sartuko direlako. Prozedura horrek berekin dakarren sinplifikazioa ere agerikoa da lurraren kalitate-adierazpenerako prozeduraz den bezainbatean, ez delako lurraren miaketazko ikerketarik egin behar izango.

Datu horiekin, aipatu memoriak ondorioztatzen du arau berriaren aplikazioak, 2040. urterainoko denbora-tartean, urtean ia lau milioi euro aurrezteka ekar dezakeela berekin.

I. kapitulari dagokionez –Xedapen Orokorrak–, irizpenak esaten du lurra kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak zehazteko erabilitako teknika gomendagarria ez den arautze-teknika bat dela, Jarduera Ekonomikoen Sailkapen Nazionala erreferentziatzen hartuta zerrendatzen direlako aurreproiektuaren I. eta II. eranskinean. Uste du arauan jaso beharko litzatekeela zer baldintza bete beharko litzaketen jarduerak halakotzat hartuak izateko, eta, erregelamenduzko garapen bidez (bigarren xedapen gehigarrian aurreikusia), zerrenda zehatza adierazi beharko litzatekeela. Alde horretatik, aurreproiektuan I. eta II. eranskinak kentzeko aukera aztertzea proposatzen da.

Horri dagokionez, esan behar da lurra kutsa dezaketen jardueren zerrenda honako errege-dekretu honetan jasotzen dela: 9/2005 Errege Dekretua, 2005eko urtarrilaren 14koa, lurzorua kutsa dezaketen jardueren zerrenda eta kutsatutako lurzoru deklaratzeko irizpide eta estandarrak ezartzen dituena.

Eta hala, 2005eko urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretuaren I. eranskinean, lurra kutsa dezaketen jardueren edo instalazioen zerrenda jasotzen da, eta haiek EJSNaren arabera identifikatzen dira; hori guztia 2. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, hartan jarduera horien definizioa jasotzen delako.

Arauari lotuta dauden jardueren zerrendak identifikatzen dituen arautze-teknika hori asko erabiltzen da ingurumen-esparruan, are erkidego-erakundeetan ere, teknika horretaz baliatu ohi baitira; horren adibide dira kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuaren esparruan edo ingurumen-ebaluazioaz emandako azken erkidego-direktibak.

Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko araudiak eragindako pertsonen segurtasun juridikoa ematearren hartan jasotako aginduak bete behar dituzten jarduerari dagokienez, eta kontu horretan interpretazio okerrak egitea saihestearren, lege-aurreproiektuak estatuko araudian jasotako jardueren zerrenda eranskinera aldatu baino ez du egiten.

Bestalde, eta II. eranskinari dagokionez (lurra kutsa dezaketen jarduerak hiru mailatan sailkatzeari buruzkoa), ezinezkoa da hura desagerraraztea araubide iragankor bat eta geroko erregelamenduzko garapena baliatuz, sailkapen hori ez delako jasotzen gaur egun indarrean dagoen eta lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko den 2005eko otsailaren 4ko 1/2005 Legean; izan ere, sailkapen horretan ardatz dira nagusiki lege-aurreproiektuaren bidez gehitu nahi diren aldaketak, zeinak, hain zuzen ere, gaur egun aurreikusita dauden mekanismoak baino malguagoak eta arinagoak diren beste batzuk –besteak beste, lurraren egokitasun-adierazpenerako beste prozedura bat– sartzean baitautza, lurraren babes egokia bermatzeko, ingurumen-administrazioak gutxiago esku hartzearen bidez.

Lege-aurreproiektuaren 3. artikuluan jasotako definizioei dagokienez, *eraldatutako lurra* bestela definitu da, definizioak haren araubideari buruzko araurik jaso ez dezan. Hala ere, ezin da bestela definitu *B ebaluazio-balio adierazlea*, definizio horrek ez duelako jasotzen araubide aplikagarriari buruzkoa den kontu bat, eta, lurpeko uren kasuan, organo eskudunak gai horretan erabakitzen duena kontuan hartuko dela esan besterik ez duelako egiten.

II. kapituluari dagokionez –Lurraren kalitatea ezagutzeko eta kontrolatzeko tresnak–, irizpenak dio behin eta berrizkoa dela aurreikusitako erregelamenduzko garapenera jotzeko 6. artikuluan egiten den deia; izan ere, hartan tresna guztiak identifikatzen dira, baina, gainera, antzeko deiak aurreikusten dira haietako bakoitza identifikatu eta jasotzen den artikulua guztietan. Alde horretatik, esaten du bi aukeretako bat hautatu behar dela, eta, lege-aurreproiektuaren 6. artikuluan, geroko erregelamenduzko garapenari buruzko aipamen hori kendu da.

Bestalde, 14.2 artikulua-zatiari dagokionez, hondeaketarako jarraibideak 199/2006 Dekretuaren II. eranskinean jasota daudelako aurreikuspena kentzea proposatzen du irizpenak, haren indarraldia ez delako luzatuko denboran, lege-aurreproiektuak berak aurreikusten duen erregelamenduzko garapena kontuan hartuta.

Izan ere, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak egindako proposamena egokitzeak jota, aipatu 14.2 artikulua-zatiaren edukia aldatu da.

III. kapituluari dagokionez –Lurzoruen edukitzaile eta jabe diren pertsona fisikoen zein juridikoen eginbeharrak–, gomendatzen da argitzen saiatzea zein eta nor dauden behartuta prebentzio-, defentsa- eta kontrol-, eta jarraipen neurriak hartzera, “erantzule” hitzaren definiziorik ez egonik.

Alde batera utzi gabe aldaketa bat egin dela artikuluen edukian kontu hori argitzeko, garrantzitsua da esatea “operadorea” sartu dela ingurumen-araudiaren esparruan; hau da, jarduera ustiatzen duen pertsona, jardueraren nahiz instalazioaren titularra izan gabe. Hain zuzen ere, lege-aurreproiektuan jasotako aurreikuspenaren xedea da jardueraren edo instalazioaren funtzionamenduan ardura izan dezakeen edozein pertsonak aurre egin behar izatea lurraren kutsaduratik babesteko araudiaren ondoriozko betebeharrei, ingurumen-erantzukizunari buruzko araudian aurreikusitako moduan behintzat.

Urgentziazko eta salbuespenezko arrazoiengatik har daitezkeen kautelazko neurriei dagokienez, eta arauaz egiten den interpretazioak pentsaraz ez dezan ingurumen-administrazioak neurritz gaineko ahalmena duela irizpenean adierazitako moduan, 21. artikuluaaren edukia aldatu da, eta ingurumen-erantzukizunaren esparruan indarrean dagoen araudian jasotako aurreikuspenetara egokitu.

Jabeek gai kutsagarriak daudela jakindakoan ingurumen-organuari horren berri emateko daukaten betebeharrari dagokionez, egia da jabeek, instalazioak eduki ezean, nekez jakin dezaketela gai horiek agertu direla, baina egia da, halaber, tresnak dituztela eskura, instalazioetan sartu eta gai horiek daudela detektatzeko.

Kontu horri gagozkiola, ulertu behar da jabeen betebehari hori beren interesak babestekoa dela, ingurumen-organuari zenbat eta lehenago jakinarazi beren lurretan kutsadura dagoelako zantzuak daudela, orduan eta azkarrago jo ahal izango delako kutsaduraren eragilearengana, kaltea edo arriskua gauzatea galarazteko, eta hura zuzentzeko neurriak hartzeko.

IV. kapituluari dagokionez –Lurraren kalitateari buruzko adierazpenak–, argi gelditzen da inkongruentea izan daitekeela, alde batetik, ingurumen-organoaren aurreitazko erabakirik gabe ematen diren lizentzien edo baimenen deusezetasuna adieraztea (26. artikulua) eta, bestetik, lizentzia edo baimen horiek V. kapituluan aurreikusitako epeak igaro ondoren emateko aukera egotea. Aholku Batzorde Juridikoak proposatzen du pentsatzea zer zentzu eman behar dion arauak isiltasunari lurraren kalitate-esparruko prozeduretan.

Kontuan hartuta lege-aurreproiektu honen bidez lortu nahi diren helburuetako bat dela gaur egun indarrean dagoen 2005eko otsailaren 4ko 1/2005 Legearen aplikaziotik ondorioztatzen diren administrazio-kargak murriztea, lege horrek administrazio-prozedura sakon eta xehatua ezartzen baitie EAEn lurra kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak izan dituzten kokaguneei lotutako jarduera guztiei, aipatu gogoeta horrek bide laburra dauka, xedea, hain zuzen ere, ingurumen-arloko esku-hartzea kokagune horietan jarduketak geldiaraziko dituen oztopo ez izatea baita.

Horregatik, aldaketa bat egin da lege-aurreproiektuaren 26. artikuluan, inkongruentziarik egon ez dadin isiltasunaren zentzuari dagokionez.

Lurraren kalitate-arloko prozedurei dagokionez (V. kapituluan daude araututa), Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak dio 30. artikuluan ez dela ezer esaten prozeduraren hasieraz artikulua 1., 2. eta 4. zatietan jasotako kasuetarako, gainerako kasuetarako esan arren.

Horri dagokionez, kontuan hartu behar da 1., 2. eta 4. ataletako prozedurak herritarrek edo herri-administrazioek sustatutako jarduketan ondorioz hasten direla; hau da, jarduerak ezarri nahi direnean, lur-mugimenduak egin nahi direnean, edo aldaketak hirigintza-planeamenduetan, eta, beraz, ezinezkoa denean zehaztea zer epetan hasi behar den lurraren kalitatearen adierazpen-prozedura, nahiz eta aurreproiektuaren testutik ondoriozta daitekeen epe horrek, gutxienez, ingurumen-organoaren aurreitazko erabakia eskatzen duen jarduketa gauzatu nahi denean baino 6 hilabete lehenago izan beharko duela.

33.1 artikulua-zatiari dagokionez (eraikitze eskubideak eta beste aprobetxamendu batzuk bertan behera uztea), aldatu egin da artikulua-zatiaren edukia, administrazio-ahalmena mugatzeko, hondakinei eta kutsatutako lurri buruzko 2011ko uztailaren 28ko 22/2011 Legean aurreikusitako moduan.

VI. kapituluari gagozkiola –Lurzoruaren kalitatea berreskuratzea–, Aholku Batzorde Juridikoak 42.3 artikulua-zatia berriz idaztea proposatzen du, bai baitirudi hartatik ondorioztatzen dela ezen, kokagunean ezarri beharreko erabilera berriaren arabera berreskuratze neurriak hartu behar direnean, erantzukizuna erabilera berriaren sustatzaileari soilik dagokiola, eta kutsaduraren eragilea erantzukizun orotatik salbuetsita geratzen dela.

Pentsatzen da egungo idazketatik inoiz ere ezin dela ondorioztatu berreskuratze neurri guztiak hartzeko erantzukizuna erabilera berria ezartzea sustatzen duenari aldatu zaiola, baina, hala ere, “osagarri” adjektiboa gehitu zaie berreskuratze neurriei, argi uzteko erabilera berriaren sustatzaileak berreskuratze neurri “osagarri” eta erabilera berriari lotuta dauden horiek hartu behar dituela bere gain.

VII. kapituluari dagokionez –Lurzoruei buruzko politikaren tresnak–, irizpenak espediente osatzea proposatzen du, eta, horretarako, lurra aztertze eta berreskuratze baimendutako erakundeentzako baimen-araubideari eusteko justifikazioa gehitzea, zerbitzu-jardueretara oztoporik gabe iristeari eta zerbitzuetan

oztoporik gabe jarduteari buruzko 2009ko azaroaren 23ko 17/2009 Legean xedatutakoa kontuan hartuta.

Horri dagokionez, esan behar da Euskal Autonomia Erkidegoan 7/2012 Legea onartu zela, 2012ko apirilaren 23koa, barne-merkatuko zerbitzuei buruz Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2006ko abenduaren 12an emandako 2006/123/EE Zuzentaraura egokitze aldera zenbait lege aldatzekoa.

Aipatu araua izapidetu baino lehen, EAEko Administrazio Orokorrean, gogoeta egin zen aipatu erkidego-direktiba horretan jasotako aurreikuspenetara egokitzeko aldatu beharreko arau autonomikoei buruz; zehazki, gogoetagai erabili zuten herri-administrazioek esku hartzeko dituzten tresnak zehatz-mehatz aztertu behar zirela, eta bat etorri behar zutela printzipio hauekin: diskriminaziorik eza, interes orokorreko ezinbesteko arrazoiengatik justifikazioa, eta arrazoi horiek kontuan hartzeko proportzionaltasuna. Zerbitzuak libreki emateko baldintzak eskatzeari dagokionez, arauak kasu hauetan soilik eskatzen ditu: behar bezala justifikatuta daudenean osasun publikoagatik, ingurumenaren babes-arrazoiengatik, ordena publikoagatik edo segurtasun publikoagatik, neurrikoak direnean, eta diskriminatzen ez dutenean nazionalitateagatik edo helbide sozialagatik.

Gogoeta horren barruan, EAEn lurra ez kutsatu eta kutsatutakoa garbitzeaz onartutako araudiari dagokionez, egiaztatu zen horretarako baimendutako erakundeak edukitzeko beharraren babesgarria zela behar hori arrazoietako bat izatea esku hartzeko tresna horiek eduki ahal izateko, azken xedea ingurumena babestea baitute.

Era berean, kontuan hartu zen ezen, lurzoruaren kalitatea ikertu eta berreskuratzeko erakundeak egiaztatzeko sistema ezartzen duen eta erakunde horiek lurzoruaren kalitatearen gainean egindako ikerketen edukia eta norainokoa zehazten dituen 2006ko urriaren 10eko 199/2006 Dekretuaren lehen xedapen gehigarriaren babesean, beste autonomia-erkidego batzuetako edo Europar Batasuneko beste estatu kide batzuetako erakunde ofizialek emandako egiaztagirien balioa onar dezakeela ingurumen-organoak, erakunde haiek eskatutako baldintzak eta betebeharrak aipatu dekretu horretan xedatutakoen baliokideak izanez gero. Horren bidez, baimen-araubideak ezartzean kontuan hartu beharreko ez diskriminatzeko printzipioa betetzen da.

Araudi autonomikoa zerbitzuetan sarbide librea izateari buruzko araudira egokitzeko beharra aztertu zenean kontuan hartu ziren gorabeherak guztiz indarrean jarraitzen dute, eta, alde horretatik, erakundeek aurreiazko egiaztatzea izan behar dutela dio lege-aurreproiektuak.

Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak arau-hauste larriari buruzko artikulua edukia (54.3 artikulua-zatiarena) berrikustea proposatzen du; zehazki, aurreko ataletan zerrendatutakoak (betiere, arriskuen norainokoa ebaluatzeko, arriskuen analisia egitea beharrezkoa bada) arau-hauste larriak izateari dagokionez. Irizpenak uste du, arriskuak edo kalteak larriak diren ala ez erabakitzeko, ezinbestekoa litzatekeela arrisku-analisia egitea, eta horrek, azkenean, aipatu aginduaren lehen atalaren birtualtasuna baliogabetuko luke.

Irizpide hori interpretazio oker baten ondorioa da, ez delako beti beharrezkoa arriskuen analisia egitea lege-aurreproiektuan aurreikusitako moduan, haien norainokoa zein den jakiteko. Eta hala, aurreproiektuaren testuan erreferentziazko B balio adierazleez (B-EBA) ematen den definizioaren arabera, argi eta garbi baieztatu daiteke ez dagoela ezin onartuzko arriskurik elementu kutsagarrien kontzentrazioak aipatu atalase horietatik gorakoak ez diren lurretan, eta, orduan, ez da beharrezkoa arrisku-analisirik egitea.

Horregatik, aginduaren 3. atal horrek, 1. atalaren birtualtasuna ez baliogabetzeaz gain, arau-hausteen tipifikazioa objektiboa bihurtzea lortu nahi du.

Nolanahi ere, atalaren norainokoa argitzearren, aldatu egin da.

Bestalde, Aholku Batzorde Juridikoak dio instalazioak aldi batez edo behin betiko ixteko zehapenek, zenbaitetan, egokitze-arazoak sor ditzaketela proportzionaltasun-printzipioaren ikuspuntutik, estatuko araudian zehapen guztiek gehieneko epe bat daukatelako.

Horri dagokionez, esan behar da lurra ez kutsatze- eta kutsatutakoa garbitze-alorrean indarrean dagoen arauak litezkeen zehapen moduan jasotzen dituela instalazioak behin betiko ixtea eta jarduerak behin betiko etetea.

Era berean, ezin da egin irizpenak oinarrizko araudian jasotako zehapenez egiten duen interpretazioa, oso arau-hauste larrietarako zehapen hau aurreikusten duelako: *aldi batez edo behin betiko ixtea instalazioak edo aparatuak, osorik edo zati batean, gehienez ere 5 urtez, horrelakoetan langileen eskubideak gordez, lan-legedian aurreikusitakoaren arabera*. Begi-bistakoa da 5 urteko epe hori ezin dela izan behin betiko ixteari buruzkoa.

Horrenbestez, lege-aurreproiektuko zehapenak bat datoz estatuko oinarrizko araudian jasotako aurreikuspenekin, eta proportzionaltasun-printzipioa errespetatzen dute.

Irizpenak lurraren kutsadura saihesteko eta kutsatutakoa garbitzeko lege-aurreproiektuaren azken zatiaz diotenari dagokionez, esan behar da bosgarren xedapen iragankorra eta azken xedapenetako lehenengoa kendu direla.

Era berean, azken xedapenetako bigarrenaren edukia (orain azken xedapenetako lehenengoa denarena) aldatu egin da, Zerga Administrazio Zuzendaritzak proposatutako testuaren edukira egokitzeko, hutsegite batengatik egokitu gabe zegoelako.

Azkenik, eta arau berria indarrean jartzeari dagokionez, pentsatzen da ondo dagoela aurreproiektua indarrean jartzeko hartan aurreikusita zegoen egunari eustea; izan ere, arauak aukera ematen du gaur egun lurraren kalitate-adierazpenerako prozedura baliatu behar duten kasu batzuetan prozedura horretatik salbuetsita geratzeko, edo, behintzat, administrazio-prozedura azkarrago eta arinago bat baliatzeko, eta, horrenbestez, lurra kutsa dezaketen jarduerak izan dituzten kokaguneetan jarduketak sustatzen dituzten herri-administrazio guztiak eta, oro har, herritarrak dira araua indarrean laster jartzearen onuradunak.

2.6.- Testuan egindako beste aldaketa batzuk

Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren txostena igorri ondoren, beste aldaketa batzuk egin ziren testuan, eta haien deskribapena egin zen Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari irizpena egin zezan helarazitako eskaerarekin batera zihoan memorian.

Lehen aipatutako 58/2014 Irizpenaren edukia aztertu eta gero, argi geratu da lurren eskualdaketa lotutako kontu batzuk egokitu behar direla, finken ekarpen- eta ondoriozko partzelen esleipen-operazioek lekua izan dezaten hirigintza gauzatzeko jarduketetan. Alde horretatik, 4. atal berria sartu da aurreproiektuaren 17. artikuluan.

Era berean, desjabetze-prozeduretatik ondorioztatutako kasuei buruzko artikulua egokitu da, ez baitu ematen zentzuzkoa denik beti eta kasu guztietan egokitzea lurra kutsa dezakeen jarduera bat uzten duen titularrari haren kalitateari buruzko adierazpen-prozedura hasteko betebeharra, uzte hori desjabetze-prozedura baten ondorio bada, eta, alde horretatik, lege-aurreproiektuaren 30.2 artikuluzatiaren edukia aldatu da.

AINHOA MINTEGUI ELORRIAGA	MEDIO AMBIENTE Y POLÍTICA TERRITORIAL	RESPONSABLE DE ASESORÍA JURÍDICA	29/04/2014
ALEJANDRA ITURRIOZ UNZUETA	MEDIO AMBIENTE Y POLÍTICA TERRITORIAL	DIRECTOR/A	29/04/2014

O. E.

Sin.: Ainhoa Mintegi Elorriaga
AHOLKULARITZA JURIDIKOA

Alejandra Iturrioz Unzueta
INGURUMEN ADMINISTRAZIOAREN
ZUZENDARIA



I ERANSKINA

TXOSTENA, LURRA KUTSATZEA SAIHESTU ETA KUTSATUTAKOIA GARBITZEKO LEGE-AURREPROIEKTUARI BURUZKO ALEGAZIOEI ERANTZUTERAKOIA.

Erreferentziazko lege-aurreproiektua dela eta, beste administrazio batzuekiko kontsulta-izapidea eta entzunaldia egin ziren, abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 8. eta 9. artikuluen arabera.

Horretarako, martxoaren 12an, kontsulta-izapidea egin zen administrazio hauekin: Foru-aldundiak –ingurumenean, herrilanean eta bide-azpiegituretan eskumena duten sailak–, Estatuko Administrazioa –Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen, eta Sustapen ministerioen bidez–, eta udalak –EUDELen bidez–. Aldi berean, entzunaldi-izapidea egin zitzaion txosten honetako I. eranskinean zerrendatutako erakundeei.

Bestalde, Ingurumen Plangintzako zuzendariak 2012ko martxoaren 6an emandako ebazpen bidez (EHAA n argitaratua 28an), lege-aurreproiektua jendaurreko informaziora atera da.

Martxoaren 16an, arauak eskumen-esparruetan daukan eragina kontuan hartuta, ekimenaren berri eman zitzaion honako sail hauei xedapen orokorren izapidetze telematikoa erabilita: Herrizaingo Saila, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saila, eta Osasun eta Kontsumo Saila.

Izapide horiez gain, Ingurumen Sailburuordetzak, ingurumen-arloan parte-hartze publikorako eskubideak erabiltzea bermatzeaz bereganatuta daukan konpromisoen barruan³, arau-ekimenaren berri eman zuen bere egoitza elektronikoan, eta alegazioak egiteko aldiaren hasiera jakinarazi.

Partaidetza-izapide horien guztien ondorioz, erakunde hauen alegazioak jaso ziren:

- Bizkaiko Foru Aldundia, Herri Lan eta Garraio Saila
- Bilboko Udala
- EUDEL
- CONFEBASK

³ 27/2006 Legea, uztailaren 18koa, ingurumen-alorrean informazioa eskuragarri izateko, partaidetza publikorako eta ingurumen-gaietan justizia eskura izateko eskubideak arautzeko dena betez

- ACLIMA
- Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila: Araubide Juridiko, Ekonomiko eta Zerbitzu Orokorretako Zuzendaritza eta Osasun Publikoko Zuzendaritza.
- Uraren Euskal Agentzia, URA
- URS
- Limia&Martin, S.L.
- Litoclean
- EHNE
- Basoinsa, S.L.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza eta Industria sailek egindako eskaintzari erantzun zioten, eta aurreproiektuari buruzko alegaziorik ez zutela esan zuten.

Ondoren, jasotako alegazioei buruzko ohartarazpen egokiak egiten dira, eta, hala gertatuz gero, aurreproiektuan egindako aldaketak aipatzen dira. Horretarako, lege-aurreproiektuaren artikuluen ordena baliatuko da:

1.- Uraren Euskal Agentziak –URA aurrerantzean– (hizpide hau duela: **3.6 artikuluzatia**), uren arloko erreferentziazko balioak ezartzeko eskumena Agentziari dagokiola esaten du bere alegazio-idazkian. Gai horretan (bateragarria baita, eta horregatik bereizi du kasu hori gainerakoetatik), eskumena ingurumen-organoari egokitzen zitzaion. Hala ere, interpretazio okerrik ez egiteko, 3. artikuluen 6. zatiko azken paragrafoa aldatu da, administrazio hidraulikoari buruzko berariazko aipamena jasoz.

2.- Zenbait alegaziok –EUDEL, CONFEBASK eta EHNE– kutsatzen duenak ordaintzen duelako printzipioa azpimarratzen dute, eta hura arau-testuan berariaz sartzeko aholkua emateaz gain, aurreproiektuak desegokiro aplikatzen duela esaten dute.

Aipatu printzipioari buruzko berariazko aipamena hemen jaso da: **4. artikulua**.

Era berean, artikulua horretan ingurumen-arloko konponbide-printzipioa biltzen da hirigintzako kudeaketa-esparruaren barruko lur osoarentzat (EHNEren alegazioetako bat da); horri dagokionez, artikuluetan garapen handiagoa izatea ez dela beharrezkoa pentsatzen da.

3.- EUDELEk adierazi du ez zaiola egokia iruditzen hondakindegijarduerak izan dituzten kokapenetan etxebizitza-erabilerak edo urbanoen parekoak onartzearen debekua, aurreproiektuko **5. artikuluan** jasoa, eta eskatzen du aurreproiektuak estatuko oinarrizko araudian xedatutakoa soilik jasotzeko, hark ez baitu debeku hori biltzen.

Horri dagokionez, esaten dugu neurri horrekin EAERI dagokion eskumen bat erabiltzen ari dela, arautze autonomikoaren bidez estatuko oinarrizko araudian ez dauden beste

babes-neurri batzuk ezartzeko eskumena. Hortik abiatuta, pentsatu da zuhurtasun-printzipioak ezinbestean eskatzen duela erabilerak mugatzea hondakin arriskutsuen biltegitratze-erabilerak jasan dituzten lurretan, edo antzeko arriskuak dituzten beste batzuetan.

Artikulu horri berorri dagokionez, BASOINSAk dio beharrezkoa dela aurreproiektuak jasotzea zer parametro erabiliko diren erabilera bateragarriak zehazteko hondakindegien zigilatze-kasuetan. Horri gagozkiola, pentsatzen da hori ez dela xede horretarako arau-tresna egokia.

4.- LIMIA&MARTINEk, bere alegazioan, lurraren kalitatea jakiteko eta kontrolatzeko tresna berri bat proposatzen du (hemen jasoko litzateke: **7. artikulua**); tresna horri “lurraren erabileraren bateragarritasuna ikertzeko txostena” esaten dio, eta lurra erabiltzeko egokitasun-prozeduretan erabiliko litzateke. Uste dugu planteamendu hori ez datorrela bat lurraren kalitate-arloko prozeduren sinplifikazio-xedearekin, baina, hain zuzen ere, xede hori izan da aurreproiektua egiteko arrazoi nagusietako bat, eta horregatik ez da hartu ideia hori.

5.- Bestela idatzi da **10.3 artikulua-zatia** kontuan hartuta Bizkaiko Foru Aldundiak aurkeztutako alegazioa, eta abiapuntuko printzipio moduan pentsatzen bada ere miaketazko azterketak kokapen osoa kontuan hartu behar duela hondakinak uzteko erabili diren lekuetan, onartzen da ingurumen-organoak salbuespen moduan erabaki ahal izatea jarduketaren xede den kokapenaren zati batean soilik egin behar dela ikerketa.

URSk, 12. artikuluari dagokionez, esaten du uraren kutsadurak produktibitateari eta azpiegiturei eragin diezaiekeelako arriskuaren ebaluazioa ez dela egiten arriskuak aztertzeke ohiko programen bidez, eta haiek ohikoak direla ingurumen-esparrua ez den beste esparru batzuetan. Pentsatzen da lurra kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeari buruzko araudiaren arabera ingurumen-organoak baimendutako erakundeak behar bezain ongi prestatuta daudela arauan aipatutako alderdien ebaluazioa egiteko.

6.- LIMIA&MARTINEk, zenbait artikulutan, **8.etik 15.erako artikuluetan**, jasotako tresnei dagokionez, esaten du zehaztu behar dela haien nahitaezko gauzapena egiaztatutako erakundeak erabiliz. Horri dagokionez, pentsatu da nahikoa eta sistematikoki zuzenagoa dela kontu hori egungo 55. artikuluan soilik jasotzea.

7.- Gainera, alegazio batzuetan desegokitzen jo da aurreproiektuaren **17. artikuluan** 5 urteko aldizkakotasuna ezartzea kutsaduraren prebentzio eta kontrol bateratuari buruzko araudiaren mende dauden instalazioetako lurraren gaineko txostenetarako (IPPC) –CONFEBASK, ACLIMA–.

Kontu horretan, alegazioen egileetako batzuek badakiten honako hau kontuan hartu da: industria-emisioei buruzko azaroaren 24ko 2010/75/EB Direktibak (kutsaduraren prebentzio eta kontrol bateratuak), kontrolen aldizkakotasuna zehaztean, 10 urteko gutxieneko aldizkakotasuna ezartzen du lurrerako, baina 5 urtekoa lurpeko uretarako. Hori kontuan hartuta, eta gogoan izanik lurraren kalitateari buruzko kontrol- eta jarraipen-neurriek praktikan berekin ekartzen dutela lurpeko uren jarraipena egitea, komenigarritzat jo da bi epeak bateratzea.

Artikulu berari dagokionez, eta Bilboko Udalak aurkeztutako alegazioa kontuan hartuta, artikuluaren lehen zatia bestela idatzi da, eta ingurumen-organo eskudunak jaso.

Azkenik, artikulu horri berorri dagokionez, EUDELek eskatu du argiago uzteko errekerimendu berri hori, baimen edo jakinarazpen substantiboaren barruan, legezko betebeharrak bat gogorarazteko ondorio hutsetarako egin behar dela. Horretaz esan behar da Autonomia Erkidegoak eskumenak dituela ingurumen-arloko estatuko oinarritzko araudia garatzeko eta betearazteko, eta, beraz, ahaldunduta dagoela erabakitzeke zer prozedura izan daitekeen azkarrena kasuan kasuko araudi sektorialean jasotako betebeharrak betetzeko, aldi berean behartutako erakundeei betetze hori errazten ahalegintzeaz gain.

8.- Kutsatzen duenak ordaintzen duelako printzipioaren aplikazio praktikoaz (aurreproiektuaren VI. kapituluan jasota dago) EUDELek, CONFEBASK-ek, EHNEk eta URSk aurkeztutako alegazioek ustez desberdinak diren bideak aipatzen dituzte. Eta hala, jasotako alegazioetan hau esaten da: “lurrak oneratzeari buruzko erantzukizunak jabeari edo edukitzaileari egokitu beharko litzaizkioke, baina iraganean kutsatzaileak izan daitezkeen jarduerak izan dituen lurtean ezarri nahi duen sustatzailearen gainean jartzen dira”. Aldi berean, hau planteatzen da: “lege-proiektuak lurraren jabe edo edukitzaile diren pertsonak behar ditzake, haiek kutsaduraren eragileak ez izan arren, prebentzio- eta defentsa-neurriak hartzera, berreskuratzeko neurriak hartzera...”.

Kontu horri dagokionez, pentsatzen da proiektuak, zalantzarik gabe, kutsatzen duenak ordaintzen duelako printzipioaren aplikazioa duela abiapuntu, eta hala, printzipio hori artikuluetan berariaz jasotzeaz gain, neurri-motei buruzko alderdiak aldatu dira – prebentzio- eta defentsa-neurriak, berreskuratzekoak, kontrol- eta jarraipen-neurriak–, neurri horiek ezarri behar zaizkien subjektu pasiboen ordena (hemen: **19., 20. eta 21. artikulua**) bestelakotuta, argi gera dadin neurri horiek, beste inori baino lehen, lurra kutsa dezaketen jardueren edo instalazioen titular edo arduradun diren pertsonen ezarriko zaizkiela. Aldaketa hori eginda, Bilboko Udalak artikulua egindako alegazioari ere erantzuten zaio. 21

9.- EUDELek, bestalde, **19. eta 21. artikulua** direla eta egindako alegazioan, esaten du ez zaiola egokia iruditzen lurraren babes-arloko prebentzio- eta defentsa-neurriak nahiz kontrol- eta jarraipen-neurriak jasotzea ingurumen-organoak, sailkatutako

jardueretarako lizentzien arloan, neurri zuzentzaileei buruz egiten dituen txostenetan. Ez da aurrekontuan gehitutako neurri berri bat, baizik eta indarreko araudiari jarraitzen dio, eta arlo honetan egiten duena ingurumen-organoak bere eskumeneko gainerako esparruetan egiten duenaren parekoa da, haiek guztiak jaso egiten baitira neurri zuzentzaileei buruzko txostenetan eta ematen dituen beste ebazpenetan; besteak beste, ingurumen-baimen bateratuetan, ingurumen-eraginari buruzko adierazpenetan eta lurraren kalitate-adierazpenetan.

10.- URAk aurkeztutako alegazioa kontuan hartuta, bestela adierazita eman da **23. artikulua**, berariaz jaso baita administrazio hidraulikoari lurpeko uretan kutsadura aurkitu dela jakinarazteko betebeharra.

11.- Lurraren kalitatearen adierazpen-prozedura abiarazten duten kasuei dagokienez (aurreproiektuaren **24. artikuluan** daude jasota), EUDELeK eta CONFEBASKEk alegatzen dute instalazioaren edo jarduera zabaltzearen kasuan ez direla haren barruan jaso behar jarduketak, baldin eta jarduerak lurra zuzenean ukitzen duela garatu behar ez badira.

Horri dagokionez, komeni da kontuan hartzea, alde batetik, lurra kutsa dezaketen jardueren eta instalazioen definizioak, aldi berean 2. artikuluari eta lurra ukitzen garatzen diren jardueren definizioari (3.5 artikuluzatian jasoa) erreparatuta, eta, bestetik, lurraren erabilerarako egokitasun-prozeduraren arauketak erantzun egokia ematen diotela egungo prozeduren malgutzeari, lurraren beharrezko babesari uko egin gabe.

Lurra kutsa dezaketen jarduera edo instalazioetako baten kasuan (aurreproiektuaren eranskinean jasota daude), jarduera hormigoizko zolata baten gainean garatzea ez da berme egokitzat jotzen esateko ez dagoela lurra kutsatuta egoteko arriskurik. Alde horretatik, ezin da aintzat hartu “lurra ukitzea” kontzeptuaren definizioa dela eta EUDELeK egiten duen alegazioa.

Bestalde, jarduera berria lehenago industria-jarduera bat izan duen lurrean ezarri behar denean, lurraren erabilerarako egokitasun-prozedura arautu da, aurreproiektuaren 26. artikuluan jasotako salbuespen-kasuaz gain, zeina partzela beraren gainean jarduera zabaltzeari dagokion.

Ez da aintzat hartzen Bilboko Udalak “ez da ezarpen moduan hartzen 1/05 Legea indarrean jarri baino lehen zegoen jarduera” dela eta aurkeztutako alegazioa. Otsailaren 4ko 1/2005 Legea indarrean jarri zenetik 7 urte igaro direnez, pentsatzen da ez dela bidezkoa aldi iragankor bat ezartzea gaur egun dauden instalazioentzat.

12.- Lurrean kutsadura dagoelako zantzu ondo oinarrituen kasuari dagokionez, zeina **24.1 artikuluzatiaren e) letran** araututa baitago, eta EUDELen eta CONFEBASKen

ustez subjektiboa baita, komeni da zehaztea ez dela kasu berria, jasota baitago indarreko legaren 17. artikuluan. Bestalde, gehiago zehazteko eskaeraz den bezainbatean, pentsatzen da ez dela egokia arau-testuan jasotako planteamendua aldatzea; kontzeptu juridiko zehaztugabea izango litzateke, eta soil-soilik kasu zehaztutako bakoitzean haren aplikazio praktikoa eginez jakin ahal izango litzateke lurrean kutsadura dagoelako “zantzu ondo oinarrituak” dauden ala ez.

13.- Bilboko Udalak, halaber, proposatzen du lurraren kalitatearen gaineko adierazpen-prozeduratik kanpo uztea ingurumen-eragin txikiko jarduerak: “(zolata egokia duten auto-tailerrak...), erabilera berriak izan ditzaten, batez ere etxebizitzaren azpiko etxabeetan”. Horri dagokionez, aurreproiektuan bestela idatzi da **25. artikulua**, lurra erabiltzeko egokia delako adierazpen-kasuei buruzkoa. Hala, kontuan hartuta aurreproiektuak, III. eranskinean, B-EBA aplikagarria erabakitzearren, bulego- eta denda-erabilerak industria-erabileraren parekotzat hartzen dituela, 25. artikulua idatzeta berriak gauza bera egiten du lurraren erabilerarako egokitasun-prozeduraren aplikazio-kasuetarako. Horrenbestez, Bilboko Udalak alegazioan planteatzen dituen kasuak prozedura berri malguagoa aplikatzen zaien artean egongo lirateke.

14.- LITOCLEANek bere alegazioan, lurra erabiltzeko egokia ote den adierazpen-prozedurari dagokionez, esaten du ez dela baimendu behar kutsatzeko ahalmen ertaineko jardueretan.

Artikulu horri berorri dagokionez, LIMIA&MARTINEK esaten du komeni dela prozedura horietan aurrez lurraren kalitate-adierazpena lortzea kokagunean lehenago garatutako kutsatze-ahalmen handiko jardueretarako.

Horri gagozkiola, pentsatzen da prozeduren sinplifikazioa izan dela kutsatutako lurren arloko indarreko araudia aldatzera bultzatu duten arrazoi bat, betiere ingurumen-babesaren arloko behar adina estandar mantenduz, eta bide horretan prestatu da lurraren erabilerarako egokitasun-prozedura berria. Aurkeztutako alegazioak planteamendu horren aurkakoak direla uste da.

15.- Aurkeztutako alegazioen zati bat ikusita, lurraren kalitate-esparruko kalitate-adierazpenerako prozeduretatik salbuesten diren kasuen zerrenda (26. artikulua) berriz aztertu da.

Zerbitzu orokorrak ezartzen direnean (kasu hori **26.1 artikuluko zatiaren a) letran** dago jasota), eta kontuan hartuta CONFEBASKEK aurkeztutako alegazioa, zerbitzu orokorretarako instalazioen ezarpenarekin batera, instalazioen aldaketa eta, era berean, partzela berean jarduera hedatzearekin batera, hura aldatzea jaso dira.

Argi-, ur- eta bestelako zerbitzu orokorrak ezartzen diren kasu horri berari dagokionez, URAK bideratze-lanak haren barruan jasotzea planteatzen du, lurraren kalitatearen gaineko adierazpen-prozeduratik salbuetsitako jarduketa moduan jaso ere, horretarako

lan horien interes publikoa argudiatuta. Alegazio hori ezin da aintzat hartu, ez baita jarduketan interes publikoa salbuesteko arrazoia, baina haien norainoko mugatua, mugitzen den lur-bolumena gutxi izatea eta lur hori leku berean geratzea. Horrelako jarduketan aldean, bideratzekoetan mugitutako lur-bolumenak handiak izaten dira, eta berekin berez ekartzen dute lurra mugitu behar izatea.

16.- Jarduera partzela berean handitzeari dagokionez (hemen jasoa: **26.1 artikuluzatiaren b) letra**), Bilboko Udalak dio komeni dela aipatu handitze hori jarduerak okupatutako partzelatik kanpo baina inbentariatutako partzela beraren barruan egiten den kasuak ere sartzea salbuespenetan.

Jarduerak okupatutako partzela eta inbentariatutako partzela bat etorri ohi dira, bigarrena lehenengoan oinarritzen delako, eta, alde horretatik, handitzeak salbuetsi egiten dira, ez baitirudi logikoa denik luraren kalitatearen gaineko adierazpen-prozedura partzial bat gauzatzea jarduera kokatuta dagoen inbentariatutako partzelan.

Baina, handitzekoa den jarduera ez bezalakoa den eta lurra kutsa dezakeen jarduera baten ondorioz inbentariatutako partzela batean handitzen bada jarduera, ikerketa bat egin behar da, arauan jasotakoaren arabera.

Era berean, badirudi udalak esaten duela komeni dela lurra kutsatzen ez duten jarduerari edo instalazioei eragiten dieten handitzeak ere sartzea salbuespen-kasu horretan. Eta gauza bera dio LIMIA&MARTINEk ere.

Gai honi dagokionez, esan behar da ez dela onartu behar lurra kutsatzen ez duten jardueren edo instalazioen handitzea salbuespenetan sartzea, prozeduraren hasiera erabakitzean garrantzitsuena ez delako jarduera-mota, baizik eta kokagunean lurra kutsa dezakeen jardueraren bat garatu den ala ez.

17.- EUDELEk eta CONFEBASKek aurkeztutako alegazioa aintzat hartu eta bestela idatzi da **26. artikulua 2. zatia**, “aldi baterako instalazioak” kontzeptuaren ordez “behin-behineko instalazioak” jarriz, azken kontzeptu hori erabiltzen baitu “behin-behineko erabileren” araubidea arautzen duen hirigintza-araudiak.

Horri dagokionez, Bilboko Udalak bere alegazioan esaten du komeni dela oinarritzko irizpide batzuk erabakitzea instalazioak aldi baterakotzat jotzeko. Ez da egokitzat hartzen hori jasotzea, kasu bakoitzean hirigintza-araudiak erabaki behar baititu parametro horiek.

18.- Artikulu berari buruz, EUDELEk eta CONFEBASKek zalantzak planteatzen dituzte aurretiazko adierazpenaren baliagarritasunari euste-kasuari buruz, zeina hemen jasota baitago: **3. zatia**. Haien aurkeztutako alegazioari dagokionez, komeni da esatea aurretiazko adierazpen baten berrikuspena egokia izateko, luraren kalitatearen gaineko adierazpen-prozedura hastea ezinbestekoa duten kasuetako bat izen behar dela (kasuok 24. artikuluan zehaztuta daude). Beti, kasu horietakoren batean egotea

oinarri hartuta eskatu beharko da, hala egokituz gero, aurretiazko adierazpenaren baliagarritasunari eusteagatik eska daitekeen salbuespena. Inola ere ez da planteatzen egindako adierazpenen ofiziozko berrikuspen iraunkorra, prozedura bat hasteko nahitaezko oinarriak falta badira. Ingurumen-organoaren esku-hartze horren bidez hau lortu nahi da: ingurumen-organoari lurraren kalitate-adierazpenaren indarraldiaz kontsulta egin zaiolarik, adierazpen hori egin zenetik kokagunean lurra kutsa dezakeen ezein jarduera garatu edo ezein instalazio ezarri ez dela egiaztatzea.

19.- Gainera, beste kasu bat jaso da **26. artikulua 4. zatian**, kutsadura dagoelako zantzu ondo oinarrituen kasuei erantzuteko, baldin eta komeni bada prozeduratik salbuestea, berreskuratzeko neurriak hartzeko beharrezko urgentziaren ondorioz.

20.- EUDELeK, 27. artikuluari dagokionez, esaten du lurraren kalitate-adierazpena aginduzkoa denean hura gabe ematen den udal-lizentzien deuseztasunak udal-jarduera eragozten duela, eta ezohiko neurri hori ezin saihestuzko interes orokorreko arrazoi batean oinarrituta egon arren, ez dirudiela proportzionatua denik. Gehitzen du 37. artikulutik deuseztasun-araubide arraro bat ondorioztatzen dela; izan ere, arauan aurreikusitako epeak igarotzen badira, eta izapide egokiarekin jarraitu ahal bada, litekeen deuseztasuna baliozkotuta geratuko litzateke.

Horri gagozkiola, esan behar da badaudela udal-jarduera eragozten duten beste araudi sektorial batzuk, hala nola proiektuen ingurumen-eraginari buruzko ebaluazio-araudia, ingurumen-eraginari buruzko aurretiazko adierazpen aginduzko eta loteslea ezartzen baitu udal-lizentziak ematean, hori denean hura hezurmamitzeko funtsezko prozedura; horrenbestez, pentsatzen da neurriarekin lortu nahi den interes orokorrak, zeina jarduerak ingurumena eta pertsonen osasuna babesteko neurririk hartu gabe egin daitezkeen galaraztea besterik ez baita, lizentzien deuseztasuna aurreikustea merezi duela.

Bestalde, “berariazko” hitza 27. artikulutik kendu da, isiltasun positiboaren araubidea lizentzien deuseztasunarekin egokitzeko.

21.- Bizkaiko Foru Aldundiak eskatu du **28. artikuluan** zehazteko zein den aurretiazko informazioan kontsulta-eskaerari erantzuna emateko epea. Horri dagokionez, pentsatu da ez dela egokia horretarako epe bat jasotzea, egiazki nahitaez egin beharreko izapide bat ez dela pentsatzen delako, eta administratuarentzat ez delako beharrezkoa hura hezurmamitzea. Nolanahi ere, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legean orokorrean ezarritako epea aplikagarria izango litzateke⁴

⁴ Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 42.3 artikulua-zatia

22.- BASOINSAk aurkeztutako alegazioa aintzat hartuta, lurraren kalitate-adierazpena egiteko prozeduraren hasieraren zehaztapena aldatu egin da lurak mugitzeko jarduketan kasuan, eta zati espezifikoa bat gehitu da, honela gehitu ere: **31.2 artikulua-zatia**.

23.- Artikulu horri berorri lotuta, Bilboko Udalak ordezkotako idazketa bat proposatu du, lurraren kalitateari buruz ikertzea dena delakoagatik ezinezkoa denerako.

Horri dagokionez, esan behar da proposamen hori ezin dela aintzat hartu, arauaren printzipioetako baten aurkakoa delako, arauaren xedearen arabera komeni baita ahalik eta une hurbilenetik jakitea ba ote dagoen lurra kutsa dezaketean jarduerak eragindako lurrik, eta ikasitako horretan oinarrituta erabakitzea.

24.- BASOINSAk gaikako hondeaketa-plan bat dagoenean ikerketa xehatua egiten den ala ez jakiteko **32. artikulua**z aurkeztutako alegazioari erantzunez, argitu behar da ezen, 32.2 artikulua-zatiak bigarren paragrafoan jasotzen duen bezala, arriskuen azterketak ordeztu duela gaikako hondeaketa-plana, baina biak ikerketa xehatuaren parte dira, aginduzkoa baita, beraz, bi kasuetan.

Zati horri berorri dagokionez ere, URSk “behar” hitzaren ordezkotako “ahal” erabiltzea proposatzen du, hondeaketari lehentasuna ematea eragozteko, baina ez da aldaketa hori egin behar, ez duelako ematen egokia denik hondeaketa bat egin behar den kasu batean –32. artikulua-ren 2. zatian jasotako kasua– prozedura sustatzen duen pertsona behartzea arriskuen azterketa bat egitera kokagunean geratzen direnak ez diren lur batzuetan.

25.- Lurraren kalitatearen gaineko adierazpen-prozeduran txosten sektorialak eskatzeari dagokionez –hemen dago araututa: **33. artikulua**–, eta, oro har, prozedura osoari dagokionez, Osasun Sailak dio beharrezkoa dela parte-hartze handiagoa egotea prozeduran, eta arriskuen azterketaren aurretik parte hartzea, eta horri aurreproiektuaren berritasuna deritzo.

Horri gagozkiolarik, bidezkoa da argitzea arriskuen azterketa indarreko legean araututako prozeduran jasota dagoela, eta aurrez diseinatutako tresna bat dela, prozeduran arriskua ote dagoen ebaluatzeko erabiltzen dena, baina ebaluazioa ez du ingurumen-organoak zuzenean egiten. Osasun Saila, gainera, elkarlanean aritu zen Ingurumen Sailburuordetzarekin tresna horren diseinuan.

Alegazioa aintzat hartuta, haren txostenaren eskaera duten espedientei buruzko aipamena aldatu da; izan ere, haiek, arriskuen azterketaren ondorioa ezin onartuzko arrisku bat dagoela dela jasotzen dutenak ez ezik, B ebaluazio-balio adierazgarriak (B-EBA) 100 bider baino gehiago gaintitzen direla jasotzen dutenak ere izango lirateke.

26.- URAk ere artikulua bera aldatzea proposatzen du, **33. artikulua**, txostena eskatzen zaion kasuei dagokienez proposatu ere, eta eskatzen du txostena galdatzeko lur baten kutsaduraren ondorioz afekzio zuzena eta/edo kutsatutako lurpeko uraren migrazioak eragindako afekzioa gertatzen denean interes hidrogeologikoko kokaguneetan, jabari publiko hidraulikoan bertan nahiz itsaso-lehorretako jabari publikoan, eta Plan Hidrologikoetako Eremu Babestuen Erregistroko eremuetan.

Horri gagozkiola, otsailaren 4ko 1/2005 Legea indarrean jarri zenetik, protokolo bat ezartzen ahalegindu da, URAREN esku-hartzea, berreskuratzeko neurriak diseinatzean, benetan zein kasutan izan daitekeen garrantzitsua eta beharrezkoa zehazteko, eta helburu horrekin lan egiten ari da talde bat, sailburuordetza honetako, IHOBeko eta URAko teknikariak kide dituen. Alde horretatik, pentsatzen da une honetan egokia dela itzarotea lantalde horrek zer emaitza lortzen dituen jakin arte.

URSk 34. eta 36. artikuluei dagokienez egindako oharpenak aintzat hartuta lurraren kalitateari eta hondeaketa baimentzeari buruz ebatzitakoei dagokienez, beste artikulua bat sartu da, berreskuratzeko plana baimentzen duen ebatzpenak zer eduki izan behar duen jasotzen duena.

27.- Zenbait alegazio – EUDELEK eta CONFEBASK-ek, batez ere, baina bai eta Bizkaiko Foru Aldundiak ere gaikako hondeaketa-planak onartzeko prozedurei dagokienez, uste dute handiegiak direla honako hauetan prozedurak ebazteko xedatutako epeak: **38., 41. eta 43. artikulua**.

Horri dagokionez, prozedurak sinplifikatzeko eta ebazteko epeak doitzeko ahalegin handia egin da, eta hori kontuan hartu da are aurretiazko jakinarazpena, ingurumen-organoren berariazko ebatzpenik gabe, litekeena dela erabaki den kasuetarako ere (ad.: 42. artikulua). Hala ere, ez da egingarritzat jotzen aurreproiektuan finkatutako epeak gehiago murriztea, prozedura hauetan, batzuetan, txosten sektorialak eta parte-hartze publikoa behar izaten direlako.

Era berean, esan behar da lurraren kalitatearen gaineko adierazpen-prozedurek ez dutela eragozten sailkatutako jardueren esparruko prozedurak hezurmamitzea; izan ere, lizentzia ematea jotzen da baliogabetzat, eta, horregatik, posible da prozeduren izapidetze paraleloa egitea, eta, horrenbestez, inolako beharrik gabeko luzapenik ez izatea.

28.- Bilboko Udalak dio gomendagarria litzatekeela egungo **38. eta 41. artikuluetan** erakundeen arteko lankidetzeta-mekanismoak jasotzea, udalek jakin dezaten noiz amaitzen diren ebazteko epeak.

Horri dagokionez, pentsatzen da 23.4 artikulua-zatian jasotako aurreikuspena – prozedurak noiz hasten diren udalei jakinaraztera behartzen du ingurumen-organoa–

nahikoa kautela dela, udalek beren udalerriko espedienteen jarraipena egin ahal izan dezaten.

38. artikuluari dagokionez, BASOINSAk dio aurreproiektuak espedienteen iraungipenaren ondorioak zehaztu behar dituela. Ez da aintzat hartzen alegazio hori, Estatuko Administrazioak daukalako gai horri buruzko eskumen eskusiboa. Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legea aplikagarria izango litzateke betiere.

29.- LIMIA&MARTINEk, **43. artikuluan** araututako salbueste-prozedurari buruz aurkeztutako alegazioan, esaten du beti hau aurkeztu behar dela lurren mugimendukasuetan: “amaierako txostena, baimendutako entitate batek egina, hondeatutako materialen berrerabilpen edo kudeaketa zuzena egiaztatzen duena”.

Horri gagozkiola, nahikotzat jotzen da orain 44. artikuluan jasotako aurreikuspena, hondeatutako lur-kantitatea 500 m³ baino gehiago denean soilik eskatzen duelako gaikako hondeaketa-plan bat onartzea.

30.- CONFEBASKek esaten du ez dagoela ados **44. artikuluan** jasotako eskakizunarekin, hau da, hondeaketak gaikako hondeaketa-plan baten arabera egin behar izatearekin, baldin eta hondeatu beharreko lurraren bolumena 500 m³ baino handiagoa bada, eta atalase hori honaino igotzea proposatzen du: 1000 m³.

LIMIA&MARTINEk, artikulua horretaz, esaten du gaikako hondeaketa-planaren eskakizunak ez duela soil-soilik lotuta egon behar hondeatutako lur-bolumenari, eta hondeatutako lurrean kutsatzaileak daudenean ere eskatu behar dela.

Ingurumenaren babesa bermatzearen ikuspuntutik, egokitzen da egungo atalaseari eustea: 500 m³. Bestalde, aurreproiektuan ingurumen-organoak erabakia har dezan aipatutako urtebeteko epea zentzuzkotzat jotzen da horrelako jarduketetan.

LIMIA&MARTINEk adierazitakoari dagokionez, esan behar da aurreproiektuak objektibotasun-maila handia lortu nahi duela bere aplikazioan, eta substantzia arriskutsuen ondorioz izan daitezkeen kutsadura-kasuei beti egin dakiekeela aurre kautelazko neurriak hartuz.

31.- Kutsatutako eta eraldatutako lurra berreskuratzeko neurriekin (hemen daude jasota: **45. eta 46. artikulua**) lortu beharreko maila dagokienez, Bizkaiko Foru Aldundiak esaten du zaila dela erabakitzea zer maila lortu behar diren kutsadurak lurpeko urei eragiten dienean.

Horri dagokionez, arau-testuak berak, orain, berariaz jasotzen du 3.6 artikulua-zatian administrazio hidraulikoari dagokiola maila horiek ezartzeko eskumena.

Kontu horiei berei dagokienez, LITOCLEANek esaten du komeni dela leku bakoitzari lotutako arrisku espezifikoa oinarrituta ezartzea lurra berreskuratzeko mailak.

Horri gagozkiola, esan behar da ezen, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumena babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra indarrean jarri ondorengo kutsadura-kasuetarako, jasota daudela indarreko arauan berreskuratze-helburu zorrotzagoak, eta ez dela ikusten hori aldatzeko premia dagoenik.

32.- Txosten honetan lehenago adierazi bezala, zenbait alegazio ez datoz bat aurreproiektuak “kutsatzen duenak ordaintzen du” printzipioa praktikan aplikatzen duen moduarekin. Interpretazio okerrik ez egoteko, printzipio hori aurreproiektuaren 4. artikuluan jaso da, eta 19., 20. eta 21. artikulua bestela idatzi dira.

EHNEk, berreskuratzeko neurriak hartzeko ardura duten pertsonak zein diren hizpide hartuta, esaten du badirudiela aurreproiektutik ondorioztatzen dela edukitzaileak edo jabeak behartu egin daitezkeela, kutsaduraren eragile ez izan arren, prebentzio- eta defentsa-neurriak, berreskuratzeko neurriak edo kontrol- eta jarraipen-neurriak hartzera, eta, alde horretatik, hondakinei eta kutsatutako lurri buruzko uztailaren 28ko 22/2011 legea egokitzeko eskatzen du. Gehitzen du berreskurapena kutsatutako edo eraldatutako luraren bolumen osoa kontuan hartuta egin behar dela, eragindako azaleko eta lurpeko urak barne.

EUDELe dio, berreskuratze-beharrari dagokionez (43. artikulua), badirudiela kalifikazioa aldatzearen ondoriozko esku-hartzeak eta hondakinen kudeaketaren ondoriozko hondeaketa-gainkostuak erabilera berri horiek sustatzen dituzten erakundeei egozten zaizkiela. Eta, alde horretatik, aipatu artikulua 1. eta 3. zatiei bi paragrafo gehitzea proposatzen du.

Gai horiei dagokienez, esan behar da ezen, indarreko arauak gaur egun egiten duen bezala, aurreproiektuak, berreskuratzeko neurriak hartzeko erantzukizunaren alorrean, bete egiten duela oinarritzko araudian, hondakinei eta kutsatutako lurri buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legean, xedatuta dagoena, eta, alde horretatik, erantzukizun hori kausatzaileari dagokiola beste inori baino lehenago. Era berean, esan behar da kokagune batean kutsadura dagoen jakiteko tresnak ez direla mugatzen erregistro-partzela jakin batera, jarduera egiten ari dela dirudien lekura baizik, kutsadura transmititzearen ondorioz jarduerak eragin ahal izan dion lekua barne. Gainera, gogorarazi behar da uretan izan daitekeen eragina ere aztertzen dela, eta, hala egokituz gero, urak babesteko behar diren neurriak ezartzen direla.

Hala ere, “kutsatzen duenak ordaindu” behar duelako printzipioa oinarri hartuta, beharrezkotzat jo da arau-testuan argi uztea kausatzaileari ezartzen zaizkion berreskuratze-neurrien betebeharrak ez duela barruan hartzen kokapenari eskatzen

zaion berreskuratze guztia. Batzuetan, lurrari eman nahi zaion erabilera berriak berak eskatzen ditu asmo hori egon ezean eskatuko liratekeenak baino berreskuratze-neurria zorrotzagoak. Horrelakoetan, berreskuratze-neurriak hartzeko betebeharra partekatua da.

Hau da **48. artikulua**ren **3. zati**aren justifikazioa; orain, hurrengo zati hau berrituta osatu da: **4. zatia**. Sailak bere arautzean modu inplizituan zegoela pentsatzen zuen estatuko oinarrizko araudiko printzipioa espresuki jasotzen du 4. zati horrek; izan ere, orain, gaizki-ulerturik egon ez dadin, honela idatzita gehitzen zaio testuari:

“3.- Hala ere, kutsatutako edo eraldatutako lurzorua berreskuratze neurriak hartzeko betebeharra ezarri ahal izango dio ingurumen-organoak lurzoruaren kalitatearen adierazpen-prozedura hastea eragin duen ekintza sustatzen duen pertsonari, baldin eta neurriak hartzeko beharra lurzoruari emango zaion erabilera berriaren berezko funtzioei zor bazaie. Betebehar hori era solidarioan ere ezarri ahal izango zaie: kutsadura hori eragin duten pertsona fisikoari edo juridikoari eta lurzoruaren kalitatearen adierazpen-prozedura hastea eragin duen ekintza sustatzen duen pertsonari.

4.- Kutsadura garbitzeko kostuak berreskuratze eskatzen dena ezingo da egon kausatzaileak kutsadura eragin zuen unean lurraren erabilerari lotuta zeuden kutsadura-mailetatik gora”.

33.- Egungo **50. artikulua**ri dagokionez, EUDELeK, bere alegazio-idazkian, esaten du publizitate handiagoa eman behar zaiola lurraren berreskurapena egiaztatzen duen ebazpenari. Kontuan hartuta proiektuak berriaz jasotzen duela artikulua berean ebazpena lurraren kalitatearen administrazio-erregistroan inskribatzen dela, eta jabetzaren erregistroan bazterreko oharra ezeztatzeko eskatzen dela, gaiaren tratamendua egokia dela pentsatzen da.

34.- EUDELeK, era berean, esaten du lurra kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak dituzten lurren inbentarioaren kudeaketak (hura aurreproiektuaren **52. artikuluan** dago araututa) arazoak sortzen dituela udal-kudeaketan.

Horri gagozkiola, esan behar dugu legean jasotako betebeharrak ez direla inbentarioan kokapen jakin bat sartzearen ondorio, lurra kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak lurrean egotearen ondorio baizik.

Hortik abiatuta, inbentarioari dagokion artikulua bestela idaztea proposatu da, hura etengabe eguneratu ahal izateko eta, gainera, hiru urtean behin berrikuspen sistematikoa egiteko.

35.- LITOCLEANek dio ez dagoela ados tasa ezartzearekin, **59. artikulua**, lurraren kalitatearen gaineko adierazpen-prozeduragatik.

Horri gagozkiola, gogoeta egin da ingurumen-espeditente administratiboak izapidetzeak sortzen dituen gastuei buruz, eta pentsatzen da beharrezkoa dela kostu horien zati bat jasanaraztea ingurumen-organoari esku hartzeko eskatzen dioten pertsona fisiko eta juridikoei.

36.- Erakunde berak aurkeztutako alegazioa kontuan hartuta, bestela idatzi da erakundeentzako baimenak aldatzeari lotutako zergapeko egitatea, **59. artikulua**ren **4. zatian** jaso, ez delako egokitzat jotzen kobratzea beste batzuen aldean administrazio-lan txikia eskatzen duten espeditenteengatik. Horregatik, kasu hau baimenaren norainokoa eta/edo proiektu-buruena eta arrisku-analisten, haien gaitasuna aurrez ebaluatu ez bada, hedatzeak eragindako aldaketetara mugatuta gelditu da.

37.- URSk aurkeztutako alegazioa kontuan hartuta, aurretiazko kontsultengatik jartzeko tasa kendu egin da; lehen, 6. zatian zegoen jasota.

38.- Tasen arautze horri berari dagokionez, EUDELe esaten du udalak salbuetsi egin beharko lirakeela tasa horiek kobratzetik.

Horri gagozkiola, tasei buruzko legean xedatutako elkarrekotasun-printzipioa aplikagarritzat jotzen da⁵; horregatik, pareko tasarik ez dagoenez, ez da egokia salbuespena.

39.- LIMIA&MARTINEk, oraingo 63.3 artikuluzatiari dagokionez, esaten du arau-haustearen larritasunak ez lukeela loturarik izan behar arriskuen azterketa egitearekin, azterketak ezin onartzeko arriskurik ez dagoela ondorioztatzearekin baizik.

Horri dagokionez, ez da egokitzat jotzen planteamendua, testuak modu objektiboan zehaztu nahi baitu arau-haustea larria den ala ez.

40.- Era berean, alegazioak jaso dira lurra kutsa dezaketen jardueren eta instalazioen zerrendari buruz (zerrenda hemen: **I. eranskina**). Zehazki, EUDELe dio jardueren zerrendak, jardueren tipologia izan beharrean, haiek erabiltzen dituzten gaiak eta sortzen dituzten hondakinak aipatu behar dituela. Gainera, esaten du zerrenda horrek bat etorri behar duela sailkatutako jarduera-lizentzia izan behar duten jardueren zerrendarekin. CONFEBASK-ek, bestalde, uste du eranskinak zehatzagoa izan behar duela.

⁵ 1/2007 LEGEGINTZAKO DEKRETUA, irailaren 11koa, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioaren tasa eta prezio publikoei buruzko Legearen testu bategina onartzekoa.

Horri gagozkiola, aurkeztutako proiektuak lurra kutsa dezaketen jardueren zerrenda bat du muga, Estatuko Administrazioak Ekonomia Jardueren Sailkapen Nazionalan oinarri hartuta oinarritzko lege moduan onartutakoa.

41.- Eranskin horri berari dagokionez, EHNEk lurra kutsa dezaketen jardueren eta instalazioen identifikazioa 93ko EJSNaren 1. berrikuspenarekin egiten dela aipatzen du, 2009ko EJSNarekin egin beharrean (apirilaren 13ko 475/2007 Errege Dekretuak onartua).

Horri dagokionez, proiektuak hautu hori egiteko arrazoiak aurreproiektuaren azalpenezko zatian daude gaineratik adierazita. Kontuan hartuta lurra kutsa dezaketen jardueren identifikazioa urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretuan jasota dagoela oinarritzko lege moduan, eta Estatuak ez duela hura eguneratu, arau horrek EAE mugatzen du, jardueri eta instalazioei buruzko aipamena 1993ko Ekonomia Jardueren Sailkapen Nazionala (2003an eguneratua) gogoan izanik egin delako. Bigarren xedapen gehigarriak Gobernuari legearen eranskinak eguneratzeko ahala ematen dionez, legea dekretu bidez moldatuko da, administrazio zentralak lurra kutsa dezaketen jardueren zerrenda berria onartutakoan, indarreko EJSNra egokituta.

42.- LITOCLEANek, bestalde, I. eranskinari berari dagokionez, esaten du ez datorrela bat defentsa-jarduera kentzearekin. Gai horretaz den bezainbatean, indarreko 1/2005 Legearekin sortu zen eta Estatuko Administrazioak Konstituzio Auzitegian errekurtsio bat jartzea berekin ekarri zuen eskumen-azua ez errepikatzearen komenigarritasuna kontuan hartu da.

Osasun Publikoko Zuzendaritzak, bere alegazioan, I. eranskinean jasotako arau-aipamen bat zuzentzeko beharra planteatu du. Hala ere, ez da beharrezkotzat jotzen hori egitea, arau-testuan jasota dagoenean sartzan den arau aldatzaile bat delako.

43.- Ekosistemei lotutako B-EBA zerrendari buruzko alegazioak ere aurkeztu dira. Entzunaldi- eta kontsulta-izapideen lehen bidalketetan egindako akats batengatik egin ziren alegazio horiek, baina akatsa izapideen barruan konpondu zen.

44.- Azkenik, Osasun Sailak bere alegazioan esaten du komeni dela Kontsumoko Kontsulta Batzordearen txostena eskatzea aurreproiektuaren izapidetze-esparruan. Horretarako, espedientea Kontsumobideri igorri zitzaion, eta aurreproiektuaren aldeko irizpena eman zuen.

45.- Idazketarekin eta aurreproiektuaren testua hobeto sistematizatzearekin zerikusia duten beste kontu batzuk ere aldatu dira, baimendutako erakundeek egindako alegazio zehatzak kontuan hartuta, baina ez du merezi txosten honetan haiek banan-banan

aztertzea, nagusiki teknikoak eta oso zehatzak direlako; hala ere, nabarmen hobetu dituzte aurreproiektuaren artikulua.

Hala, besteak beste, 3.7 artikuluz ematen den definizioa aldatu egin da ekosistemen babesaren ildotik, bai eta ordezkoko aukeren azterketaren norainokoa ere (13. artikuluan xedatua).



II ERANSKINA

TXOSTENA, EKONOMIA ETA GIZARTE ARAZOETARAKO KONTSEILUAK LURRA KUTSATZEA SAIHESTU ETA KUTSATUTAKOA GARBITZEKO LEGE-AURREPROIEKTUA DELA ETA EMANDAKO IRIZPENARI ERANTZUTEKOA.

2012ko ekainaren 18an, jasotako alegazioak oinarri hartuta testua aldatu ondoren, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Kontseiluaren irizpena eskatu zen.

Irizpena urte bereko uztailaren 18an eman zen, eta hasieran lege-aurreproiektuaren aldeko iritzia ematen du, baina zenbait ohar egiten ditu igorritako testuari buruz.

Irizpeneko ohar horietako batzuk bat datoz entzunaldian, kontsulta-aldian eta jendaurreko informazio-izapidean kontsultatutako administrazioek eta erakundeek alegatutakoarekin. Hala ere, irizpenean ohartarazitako guztiari erantzungo zaio.

a) Irizpenean honako hau esaten da: *“lur kutsatuak eta eraldatuak berreskuratzeko neurriak hartzean dauden erantzukizunei buruzko lege-aurreproiektuaren atalek ez dute argi jasotzen kutsatzen duenak ordaintzen duelako printzipioaren aplikazio praktikoa”*

Horri dagokionez, alegazioei erantzuteko txostenak argiro arrazoitzen du Administrazioak gai honetan duen jarrera:

“Gai horiei dagokienez, esan behar da ezen, indarreko arauak gaur egun egiten duen bezala, aurreproiektuak, berreskuratzeko neurriak hartzeko erantzukizunaren alorrean, bete egiten duela oinarrizko araudian, hondakinei eta kutsatutako lurrei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legean, xedatuta dagoena, eta, alde horretatik, erantzukizun hori kausatzaileari dagokiola beste inori baino lehenago. Era berean, esan behar da kokagune batean kutsadura dagoen jakiteko tresnak ez direla mugatzen erregistro-partzela jakin batera, jarduera egiten ari dela dirudien lekura baizik, kutsadura transmititzearen ondorioz jarduerak eragin ahal izan dion lekua barne.

Gainera, gogorarazi behar da uretan izan daitekeen eragina ere aztertzen dela, eta, hala egokituz gero, urak babesteko behar diren neurriak ezartzen direla.

Hala ere, “kutsatzen duenak ordaindu” behar duelako printzipioa oinarri hartuta, beharrezkotzat jo da arau-testuan argi uztea kausatzaileari ezartzen zaizkion berreskuratzeko-neurrien betebeharrak ez duela barruan hartzen kokapenari eskatzen zaion berreskuratzeko guztia.

Batzuetan, lurrari eman nahi zaion erabilera berriak berak eskatzen ditu asmo hori egon ezean eskatuko liratekeenak baino berreskuratze-neurria zorrotzagoak. Horrelakoetan, berreskuratze-neurriak hartzeko betebeharra partekatua da.”

b) Irizpenak honako hau ere esaten du: “... *ahalegin handiagoa egin beharko litzateke lurraren adierazpen-prozeduretako ebazpenak lortzeko izapideak azkartzearen.”*

Horri dagokionez, pentsatzen da zorrotz aztertu dela lurra ez kutsatu eta kutsatutakoa garbitzeari buruzko otsailaren 4ko 1/2005 Legean araututako lurraren kalitate-adierazpenerako prozedura, eta azterketa horren ondorioz lortu den testuak argi uzten duela ahalegin handia egin dela gai honetan administrazioaren esku-hartzea sinplifikatzeko, baina inola ere ahaztu gabe babesten den interes publikoak, hau da, lurraren kalitateak, nahitaezkoa duela batzuetan esku-hartze hori.

c) Irizpenak, halaber, honako hau dio: “*Aurreproiektuaren zioen azalpenak ingurumen-estandarren betetze zorrotza aipatzen du, aldaketak berekin inola ere ekarri gabe haiek arintzea. Hala ere, atal batzuetan estandar horiek gainditu ere egiten dira, hondakinei buruzko erkidego-direktibetan eta lur kutsatuei buruzko estatuko oinarrizko araudian jasotakoak baino irizpide zorrotzagoak hartzearen bidez”.*

Izapidetzen ari den lege-aurreproiektua egun indarrean dagoen testuaren antzekoa da, lortu beharreko ebaluazio-balio adierazgarriak zehazten diren neurrian, aplikagarriak direnak baino balio zorrotzagoak jaso gabe zehaztu ere.

d) Azkenik, eta ohar orokorrei dagokienez, irizpenak dio ez daudela behar bezain ongi araututa 22. artikuluan araututako kautelazko neurriak, neurri horien bidez babestu beharreko interesen edukia zehazteaz den bezainbatean, interes horiek giza osasunaren babesa eta ingurumenaren babesa izanik, hala nola 48. artikuluan araututako lankidetzazko hitzarmenak, mantendu beharko ziren baldintza batzuk kendu direlako.

Pentsatzen da ezen, ez bakarrik lege-aurreproiektuaren 22. artikuluan aurreikusitako kautelazko neurriek, bai eta hartan jasotako aurreikuspen guztiek ere giza osasuna eta ingurumena babestea dutela xede; horregatik, ez da ezer zehaztu behar horri buruz.

Lankidetzazko hitzarmenei dagokienez (orain testuko 42.6 artikuluzatian daude aurreikusita), gogorarazi behar da hitzarmen horiek Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearena den azaroaren 26ko 30/1992 Legean daudela araututa, eta ez dela beharrezkoa ezer gehitzea aurreproiektuan.

e) Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Kontseiluak, azkenik, oharpen espezifiko batzuk egiten ditu aurreproiektuaren artikuluei buruz; zehazki:

2. artikulua. Aplikazio-esparrua: Xedapen bat gehitzea gomendatzen da, lege berriaren aplikazio-esparrua jaso dezan; 2. artikulua bat izango litzateke: Honen modukoa *“lege hau EAEko lurretan aplikatuko da, baldin eta haietan kutsa dezakeen jardueraren bat garatzen ari bada, edo garatu bada, bai eta jarduera haren zeharkako eragina jasan ahal izan duten lurretan ere”*.

Lege-aurreproiektuaren xedea Euskal Autonomia Erkidegoko lurra babestea da, jatorri antropikoko jardueren ondorioz haren ezaugarri kimikoak eraldatzea eragotziz. Arauaren esparruak ez ditu bakarrik kontuan hartzen lurra kutsa dezakeen jardueraren bat daukaten edo izan duten lurrak, bai eta lurralde osoa ere, jarduera bat edozein lurretan ezartzeak hura kutsatu ahal izatea eragozteko.

9. artikulua. Lurraren egoerari buruzko txostenak: Artikuluaren 3. zatian, norainokoaz eta edukiez gain, honako hau ere aipatzea gomendatzen da: *aldizkakotasuna*.

Aurkeztutako alegazioa kontuan hartuta, lurraren egoerari buruzko txostenei dagokien artikuluan (orain 8. artikulua), lurraren egoerari buruz aurkeztu beharreko txostenetarako eduki, norainoko eta aldizkakotasun desberdinak erregelamendu bidez ezarriko direla jaso da. Gainera, Europako EMAS Erregistroan sartuta dauden erakundeen kasuan, arautze horretan administrazio-onurak zehaztuko direla aurreikusitua da.

Nolanahi ere, gogorarazi behar da ezen, kutsaduraren prebentzio eta kontrol bateratuei buruzko araudiaren mende dauden instalazioen kasuan, aldizkakotasuna aurreproiektuaren testuan zehazten dela (orain, 16.2 artikulua-zatia), industria-emisioei buruzko 2010/75/EB Direktiban jasotako aurreikuspenen ondorioz.

12. artikulua. Arriskuen analisia: 2. zatian hau gehitzea proposatzen da *“bai eta substantzien kontzentrazioa, toxikotasuna eta esposizioa ere.”*

Kontu espezifikoa da, berriaz jaso behar ez dena lege-mailako arau batean, eta egokiagozat jotzen da gai horiek erregelamendu bidez zehaztea, 11. artikulua berriak 3. zatian dioen bezala.

14. artikulua. Gaikako hondeaketa-plana: Daukaten garrantziagatik, geroko erregelamendu bidezko garapenaren zain egon behar ez dutela iritzita, 3. zatian honako hauek gehitzea gomendatzen da:

“b) metodologia eta *hondeatzeko* teknikak

g) *Segurtasun- eta osasun-plana*

14. artikulua. 3. zatia (orain 13. artikulua) kendu egin da, lurra zer kalitate duen jakiteko tresnen edukiarekin zerikusia duten kontu horiek xehetasunezkoak direla pentsatu baita, guztiz teknikoak, eta egokiagoa dela haien erregelamendu bidez arautzea. Nolanahi ere, ekarpena kontuan hartuko da, garapenezko araudi hori prestatzean.

16. artikulua. Lurraren babes: Proposatzen da *jabari publikoko ondasunen emakidadun diren pertsonak* lurraren kalitatea zein den jakiteko eta kontrolatzeko betebeharrak duten pertsonen artean sartzea, hala nola prebentzio-, defentsa-, berreskuratze-, kontrol- eta jarraipen-neurriak hartzeko betebeharrak dutenen artean, betiere legeak zehaztutako kasuetan.

Ez da egokia Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Kontseiluak egindako proposamena onartzea (15. artikulua orain), emakidadun diren pertsonak ez diotelako uzten lurzorua edukitzea izateari, eta, horrenbestez, lege-aurreproiektuak lurraren babes-esparruan ezarritakoa betetzera behartuta daudelako.

17. artikulua. Lurrari buruzko txostenen aldizkakotasuna: Egoerari buruzko txostenak aurkezteko epearen aldizkakotasuna handitzea iradokitzen da, eta xedapenean jasotako bostetik hamarrera aldatzea, eta hori industria-emisioei buruzko 2010/75/EB Direktibak esaten duen kontrol hori gutxienez bost urtean behin egingo dela lurpeko uren kasuan, 10 urteko aldizkakotasuna ezarrita, aipatu kontrol hori kutsatzeko arriskuaren ebaluazio sistematikoan oinarritu ezean.

Gai horri dagokionez, esan behar da gaia aztertu egin zela, jendaurreko informazio-izapidean jasotako alegazio-idazkietako batzuen edukia ikusita, baina, hala ere, beharrezkotzat jo zen hura mantentzea, lurraren kalitateari buruzko kontrol- eta jarraipen-neurriak, praktikan, berekin dakartelako lurpeko uren jarraipena egitea, bi epeak batzeari komenigarri irizita.

18. artikulua. Lurraren eskualdaketa: Proposatzen da *“eta hori Jabetzaren Erregistroan jasoko da bazterreko ohar bidez”* gehitzea, nahiz eta esaten den kontu hori proposamenaren geroagoko xedapen batean jasota dagoela.

Sistematikoki zuzenagotzat jotzen da kontu hori lege-aurreproiektuaren 28. artikuluan soilik jasotzea.

24. artikulua. Lurzoruaren kalitatearen adierazpenaren kasuak: Arauaren a) letran jasotako kasuari dagokionez, Kontseiluak uste du ez luketela trataera bera izan behar erabilera-kasuek, kutsatuta egon daitekeen lurraekin kontaktu fisikoa izan zein ez (adibidez, jarduera berria berriro beharrezkoak ez diren hormigoizko zolatetan edo

pabiloietan garatu behar denean). Alde horretatik, zati horretan “lurra ukitzen ez egon ezean” gehitzea proposatzen da.

Kontu hori aztergai izan zen EUDELEK eta CONFEBASK-ek aurkeztutako alegazio-idazkien ondorioz, eta, horregatik, alegazioei erantzuteko txostenean adierazitakoa errepikatu baino ezin da egin; hau da, zehazki, kontuan hartu behar direla, alde batetik, lurra kutsa dezaketen jardueren eta instalazioen definizioa eta lurra ukitzen garatzen diren jardueren definizioa, eta, bestetik, lurraren erabilerarako egokitasun-prozeduraren arauketa, egungo prozeduren sinplifikazio handiagoari erantzuten baitiote. Jarduera hormigoizko zolata baten gainean garatzea ez da berme egokitzat jotzen esateko ez dagoela lurra kutsatuta egoteko arriskurik, jarduera testuko I. eranskinean jasota daudenetako bat bada.

Lurrak substantzia kutsatzaileak dituelako zantzu ondo oinarrituak egoteari buruzko suposizioari dagokionez, beharrezkotzat jotzen da xedapenean zehatzago azaltzea zein diren edo izan daitezkeen ondo oinarritutako zantzu horiek.

Kontu hori ere aztertu zen jendaurreko informazio-izapidean aurkeztutako alegazioen ondorioz, eta esan behar da ez dela beharrezkoa gehiago zehaztea, aplikazio praktikoak soilik emango duelako aukera jakiteko zantzu ondo oinarrituak dauden ala ez suposizioan aipatutakoaren ildotik.

Hala ere, zati hori aldatu egin da, zantzu horiek arrisku bat egoteari lotzeko, eta honela idatzita geratu da (23.1.e letra): Lurrean substantzia kutsatzaileen kontzentrazio arriskutsuak egon daitezkeelako zantzu ondo oinarrituak.

26. artikulua. Lurzoruaren kalitatearen arloko adierazpen-prozeduretatik salbuesteko kasuak: Jarduera edo instalazio baten zabalkuntzaren salbuespena dela eta, proposatzen da lekua izango lukeela prozesuetako egungo azpiegituren “optimizazioak” edo “eraldaketak”, jardueraren zabalkuntza osatuz, horrenbestez.

Zati horri dagokionez (orain 25. artikularena), aldatu egin zen CONFEBASK-ek aurkeztutako alegazioa kontuan hartuta, eta zerbitzu orokorretarako instalazioak ezartzearekin batera, haien aldaketa jaso zen, bai eta, partzela berean jarduera zabaltzearekin batera, haren aldaketa ere. Esparru horretan, aldaketa hitza zabalagoa dela optimizazioa baino, aldaketa oro ezin baita ezinbestean bideratu prozesuen optimizaziora; horregatik, ez da kontuan hartu behar Euskal Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Kontseiluaren proposamena.

37. artikulua. Hondeatzea baimentzeko adierazpenaren edukia: c) letran honako hau gehitzea proposatzen da: *“hondeatutako materialak hondakindegira eramanez gero, araudi sektorialean xedatutakoa kontuan hartuko da.”*

Artikulu hori, lege-aurreproiektuan araututako prozeduren esparruan ingurumen-organoak eman beharreko ebazpenen edukiari buruzkoekin batera, kendu egin da testutik, nabarmenki arau-betearazlea izateagatik.

41. eta 42. artikulua. Lurzoruaren kalitatearen edo erabilerarako egokitasunaren inguruko adierazpenetik salbuesteko prozedura: Ingurumen-organoaren esku-hartzeari lotutako hondeaketaren xede den materialaren bolumena handitzea proposatzen da: 500 m³-tik 10.000 m³-ra.

Era berean, 42. artikuluan aurreikusitako epea hilabetetik 15 egunera murriztea proposatzen da, administrazio-isiltasunaren izaera positiboari eutsiz.

Alderdi hori aztertu egin zen lehenago aurkeztutako alegazioen ondorioz, eta organo honek egokitzat jo zuen ingurumenaren babesa bermatzearen ikuspuntutik 500 m³-ko atalaseari eustea.

Hala ere, geroago egindako gogoeta batek agerian utzi du hondeaketa-bolumena lege-mailako arau batean esplizituki jasotzea neurritz gain arau-betearazlea dela, eta, horrenbestez, salbuespen-kasuei buruzko artikuluan, 25.ean, zati bat gehitu da, gaikako hondeaketa-plan bat aurkeztea eskatuko duten atalaseak erregelamendu bidez ezartzeko aukera ematen duena.

Ahalegin handia egin da prozedurak sinplifikatzeko eta ebazteko epeak doitzeko, baina ez da egingarritzat jotzen neurri handiagoan murriztea, batzuetan beharrezkoak izan daitezkeelako txosten sektorialak.

48. artikulua. berreskuratze-neurriak hartzera behartutako pertsona fisikoak eta juridikoak: 7. zatiko 1. paragrafoan hau gehitzea gomendatzen da: *“Hitzarmenek garbitzeko eta berreskuratze lanak egiteko modua eta epeak jaso beharko dituzte kasu guztietan.”*

Irizpenean esaten da ezen, hitzarmenen gutxienerako edukira jotzeko erregelamenduzko bidaltze-oharrik ez dagoenez, funtsezkotzat jotako gutxienerako eduki batzuk gehitzea proposatzen dela. Eta hala, aipatu zatiko 2. paragrafoan hauek gehitzea gomendatzen da:

“Borondatezko akordioek, gutxienez, honako hauek jasoko dituzte:

- *Egin beharreko garbiketa- eta berreskuratze-lanen norainokoa*
- *Lan horien arduradunetako bakoitzak bere gain hartutako betebeharrak*
- *Lanak betetzeko epea*
- *Aurrekontua eta finantzaketa-iturriak”*

Kontu horri dagokionez (egungo aurreproiektuaren 42. artikuluan dago), lankidetzahitzarmenei buruz lehenago esandakoa errepikatzea baino ezin da egin.

58. artikulua. Ikuskapena eta kontrola: Beharrezkotzat jotzen da egun indarrean dagoen arauaren 39. artikuluan araututa zeuden ikuskapena eta kontrola mantentzea, eta, soil-soilik herri-administrazioek sinatutako hitzarmenatarako, 5. zatian hau gehitzea proposatzen da: *“48.7 artikuluzatiak aipatzen dituen lankidetzahitzarmenek lurra berreskuratzeko sistemaren funtzionamenduaren jarraipena eta ikuskapena egiteko mekanismoak jaso beharko dituzte”*.

Lankidetzahitzarmenei dagokienez, esan behar da sinatzaileek bere erabakiko dutela jarraipena, ikuskapena eta kontrola egiteko zein diren mekanismo egokiak haien helburuak lortzeko, eta salaketa egiteko zer mekanismo erabili behar diren, eskuhartzaileetako bakoitzak bere gain hartutako betebeharrak ez betetzeagatik.

Bigarren azken xedapena (gehitzekoa): Testuak erregelamenduzko garapenklausularik ez duenez, honen moduko azken xedapen bat sartzea gomendatzen da: *“Gobernuak, lege hau indarrean jarri eta(e)ko epean, hura betetzeko behar diren erregelamenduzko arauak onartuko ditu.”*

Kontuan hartuta lege-aurreproiektuaren edukia sakon aztertu dela neurritz gain araubetearazlea izan ez dadin, orain geroago garatuak izateko uzten diren zenbait alderditan aldatu da, eta ezinezkoa da aipatu araudia onartzeko epea zehaztea. Nolanahi ere, garapenezko arau-proiektu horiek egiteko lana hasiko da lege-aurreproiektua Legebiltzarrean izapidetu bitartean, onartzen denerako erregelamendu horiek izan ahal izateko.

I. eranskina. Lurzorua kutsa dezaketen jarduerak: 2009ko EJSNa erabiltzea proposatzen da, nazioarteko berrikuspen-prozesu baten emaitza delako, eta Europar Batasunak ezarpen-plan bat erabakia du, 2009ko urtarrilaren 1ean hastekoa, estatu kideetako inkestetako informazioaren alderagarritasuna bermatu ahal izateko; apirilaren 13ko 475/2007 Errege Dekretuak 2009ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatzea aurreikusten du, eta Estatistikako Erakunde Nazionalak 93ko EJSNa, 1. Berrikuspenaren eta 2009ko EJSNaren arteko elkarrekotasuna azaldu du jendaurrean.

Azkenik, beharrezkotzat jotzen da xehetasun gehiago jasotzea epigrafe batzuetan; besteak beste, hauetan: 37. epigrafea (birziklapena), 40.1 epigrafea (energia elektrikoaren ekoizpena eta banaketa), 63.124 epigrafea (beste gordailutze eta biltegitatze batzuk) eta 93.01 epigrafea (ehunezko eta larruzko jantziak garbitzea, txukuntzea eta tindatzea).

Kontu horiek ere planteatu ziren jendaurreko informazio-izapidean, eta, horregatik, errepikatu baino ezin da egin lurra kutsa dezaketen jardueren identifikazioa urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretuan jasota dagoela oinarritzko lege moduan, eta Estatuak ez duela eguneratu; horrenbestez, erreferentzia 93ko EJSNaren arabera jasotzen duen

araudi horrek EAE mugatzen du. Aurreproiektuak Gobernuari eranskinak eguneratzeko eskumena ematen dionez, Dekretu bidez egokituko da, administrazio zentralak zerrenda berria onartutakoan.